

Errenterriako Emakume eta Gizonen arteko

III. Berdintasun Planaren

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

ARDATZA

GARATZEKO ESTRATEGIA



AURKIBIDEA

HITZAURREA	3
1. “INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK” ARDATZA LANTZEKO PROZESUA	4
2. TESTUINGURUA	7
2.1. Onartutako indarkeria mota	8
2.2. Salaketa arretaren erdian	10
2.3. Salaketaren datuak eta laguntza-eskaera Erreterian	12
2.4. Sinesgarritasunaren ebaluazioa, arretaren zeregin gisa, eta banakako esku-hartze ereduak	16
2.5. Joera markatzen duen salbuespen bat Erreterian: Emakumeen Etxea	17
2.6. Erakundeen arteko koordinazioa	18
3. “INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK” ARDATZAREN KONTZEPTU-ESPARRUA	20
4. “INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK” ARDATZAREN DENBORA ETA GAI-ANTOLAKETA 25	
1. ILDOA. PREBENTZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIA HARTZEA	29
2. ILDOA. ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA	33
3. ILDOA: SALAKETA PUBLIKOA, MEMORIA ETA ERREPARAZIOA	40
4. ILDOA: ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA	45
5. ARDATZA ABIARAZTEKO ETA HAREN JARRAIPENA EGITEKO TRESNAK	48
5.1. Adierazleen sistema	48
I.ERANSKINA: Parte-hartzaileen zerrenda eta erakundea	55
II. ERANSKINA: Praktika Onen Ereduak	56
III ERANSKINA: AKTA GRAFIKOAK	62
IV. ERANSKINA: LEGE ESPARRUA	68

HITZAURREA

Errenteriako Udalak ibilbide luzea du berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako politikak eta planak abian jartzen. Gaur egun, udalerriko alderdi politikoen artean dagoen adostasuna, berdintasunaren aldeko konpromisoari eta indarkeria matxistaren aurka lan egitearen aldeko apustuari dagokionez, lan honetan parte hartu duten gizarte-sektore guztiek adierazitako indarguneetako bat da. Une honetan gobernatzen duen taldeari buruz dagoen balorazio positiboa ere nabarmentzen da, bai haren ikuspegi feminista bai emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokari lehentasuna ematea aintzatesten baitzaio.

Arlo honetako udal-politiken ardatz egituratzailea zein izan behar duen birpentsatzeko premiaren aurrean, udaleko Berdintasun Sailak, Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko III. Berdintasun Planaren INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK ardatza lantzeko, parte-hartze prozesu bat jarri zuen abian.

Abiapuntu gisa, ebaluazio bat egin zen, non indarkeria matxistaren aurkako borrokan diharduten hainbat erakundetako 44 pertsonak hartu zuten parte, eta bertan, hasierako proposamen hau lantzeko ekarpenak eta orientabideak jaso ziren.

Dokumentu honetan, ardatzak jarraitu behar duen estrategia orokorra azaltzen da, eta esku-hartzeko arloak zehazten dira, bai eta urtero abian jarri beharreko ekimenak ere, indarkeria matxistatik gabeko bizitzak bizi daitezkeen udalerrri bat eraikitzen joateko, espazio publikoan zein pribatuan.

2021eko urtarrila

1. “INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK” ARDATZA LANTZEKO PROZESUA

COVID-19aren pandemiaren erdian ardatz hau lantzeko parte-hartze prozesu bat garatzeak erronka handia ekarri zuen, batez ere aurrez aurreko topaketen agertoki osagarri gisa birtualtasuna barne hartuko zuten lan-modu berriak bilatzean. Nahiz eta formatu birtuala berritzailea izan eta emakume batzuek hura erabiltzeko zailtasunak izan, parte hartu duten pertsona guztiek erakutsitako egokitzapena eta malgutasuna nabarmentzeko modukoak, eta indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko estrategia eraginkorrak aurkitzeko konpromisoaren beste adierazgarri bat dira.

Prozesu hau Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko II. Berdintasunerako Planak(2001-2016)arloan horretan ezarritako hiru helburuak betetzen ziren ebaluatuz hasi zen, non 44 pertsonak¹ hartu zuten parte: herritarrak indarkeriaren errealitateaz sentsibilizatu, indarkeriakasuen arretoa hobetu eta indarkeria prebenitzeko lan egin.

Ebaluazioak ekarri zituen elementu kualitatiboaren sistematizazioarekin eta Sortzen Aholkularitzako talde teknikoak berdintasunerako teknikari-taldearekin eta gobernu-taldeko politikariek landutako lan-ildoaren proposamenarekin jarraitu zuen. Sistematizazio horrekin batera, Jardunbide Egokiak bilatu ziren, udal-errealitatean²hobekien egokitzen ziren alderdiak bideragarri egiteko moduan sakontzeko.

Prozesuaren atal horrek hiru lan-mahai³ egitea ekarri zuen, honako gai hauek jorratzeko: emakume biktimei laguntzeko esperientziak; emakumeen oroimenaren erreparazioari eta eraikuntzari buruzko esperientziak; Gipuzkoako hiru udaletako erakundearen arteko eta udaleko koordinazio-esperientziak. Lehenengo bi mahaietako kontakizunak Berdintasun Kontseilu zabalduarekin alderatu ziren, ardatzaren lan-programan sartutako iradokizunak jasotzeko.

Azkenik, prozesu honen emaitzak zirriborro batean jaso ziren, gobernu-taldearen talde tekniko eta politikoarekin, udalerrian presentzia duten gainerako alderdi politikoetako langileekin eta Berdintasun Kontseiluarekin alderatu zena.


¹ 1. Eranskinean dago parte hartzen duten pertsonen eta erakundearen zerrenda.

² Ikus 2. Eranskina: Jardunbide Egokien Sistematizazioa

³ 3. Eranskinean kontsulta daitezke *femgarabat*-ek egindako mahai horietako bakoitzaren akta grafikoak.


Prozesu osoa 2020ko uztailetik 2021eko otsailera bitartean egin zen, udaleko teknikarien eta prozesuaz arduratzen den aholkularitza-enpresak bereiztutako pertsonen arteko lan koordinatuaren bidez.

"Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak" ardatza lantzeko eskema



Prozesu honetan zehar, udalak denborari dagokionez dituen beharrei erantzuteko proposamen bat ere egin zen, honako hauek izango zituen: epe luzerako estrategia bat, ebaluatu daitekeen hiru urteko plan bat eta urtero abian jarri beharreko ekimenen multzo bat. Hori guztia, hitzartutako lan-arloetan, modu sistematikoan, garatzen jarraituko diren jarduerekin aldi berean gauzatua.

Hala, "Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak" ardatzaren programa, lan-eskema pixkanaka eraldatzen duen, ibilbide-plan gisa ulertzen da, programa honen kontzeptu-esparruan garatutako ikuspegia gauzatzeko beharrezkoak diren aldaketak sartuz. Indarkeriari aurre egiten dioten udalerriko emakumeen behar desberdinak helburu egiten dituen ikuspegi bat, udal-zerbitzu guztietan hartuz eta indarkeriatik ateratzeko estrategia egokiaren aintzatespenean lagunduz, ez banaka, testuinguru eta ingurune ulerkor batean baizik.



Ikuspegi honen garapena, ebaluazioaren ondorioak osatu, testuingurua aztertu eta ibilbide-mapa honen euskarri den kontzeptu-esparrua garatu duen prozesu parte-hartzaile baten emaitza izan da.

2. TESTUINGURUA

Atal hau ebaluazioaren emaitza kualitatiboetatik abiatuta landu da, elkarrizketetan adostasun handiena izan duten elementuak osatuz eta elkarrizketatutako pertsona bakoitzak ekarritakotik haratago landuz; hala, hurrengo urteetan jarraitu beharreko programa proposatzeko abiapuntu den erreferentzia-esparru bat lortzeko.

Testuinguruaren azterketa honetan, indarkeria matxistaren inguruko politika publikoen alderdi orokorrak hartu dira kontuan, tokiko politikak zehazten ez dituztenean. Era berean, udalerrian zein zerbitzuren batean gertatzen denari buruzko alderdi bereziak sartu dira, hauek propioak izan, edo haiekin lan egiten dutenak izan edo toki-mailan jarduten dutenak izan; kasu honetan, banakako ekarpenak adierazi dira.

Erabateko adostasuna izan da une honetan indarkeria matxistaren inguruan udal politikak eta lan egiteko moduak eraldatzeko beharrezko baldintzak dauden uste orokorraren inguruan. Baldintza horiek honako hauek dira:

- Udaleko talde politiko guztien adostasuna indarkeria matxistarik gabeko bizitzak eraikitzeke estrategia bateratua garatzeren garrantziari buruz.
- Profil eta konpromiso feminista argia duen udal-gobernua.
- Ekimena eta bultzada duen elkarte-sarea, COVID-19aren pandemiak eragindako konfinamenduan zuen inplikazioa erakutsi zuena.
- Emakumeen Etxe bat, emakumeen mugimendua indartzeko gune berria dena.
- Arlo honetatik eta beste udal-politika batzuetatik, emakumeen ahalduntzea bultzatzearen aldeko apustu garbia.
- Eta emaitzak askotarikoak izan arren, ardatz honetan aurrera egiteko hainbat ekimen garatu dituen lan-esperientzia.

Politika berriek indarkeria matxista eta haren dinamika -bai biziraun duten emakume biktimen⁴ aldetik, bai haiek artatzen dituzten lantalde eta profesional batzuen aldetik edo herritarren aldetik- ulertzeko modu tradizional batzuk gainditzea eskatzen dute, baina baita laguntza eskatzera hurbiltzen direnei, zerbitzu publikoek eskaintzen dieten arreta-eredua ere.

⁴ Aurrerago izendapen horren argudioak garatzen badira ere, indarkeria matxista mota desberdinei aurre egiten dieten emakumeak hasieratik izendatzen dira horrela.

Zerbitzu hauek emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko politika publikoak, esplizituki edo inplizituki, bideratu dituzten eta jarraian garatuko ditugun linea menduetatik abiatuta eraiki dira.

2.1. Onartutako indarkeria mota

Lege-mailan, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neuriei buruzko, abenduaren 28ko, 1/2004 Lege Organikoak egiten duen *genero-indarkeriaren* definizioak, bikote edo bikote ohi heterosexual baten esparruan emakumeek pairatzen duten indarkeriari soilik murriztuta, muga handiak ezartzen dizkio indarkeria matxistaren aurkako estrategia oso baten adierazpenari.

Araudiari dagokionez, lege hau Europako legediaren atzetik doa, zeinak indarkeriaren beste era eta esparru batzuk onartzen baititu Europako Kontseiluak emakumearen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurrea hartzeko eta horren aurka borrokatzeko egindako Hitzarmenean (2011ko maiatzaren 11n Istanbulen sinatuta, eta Espainiako gobernuak 2014ko ekainaren 6an berretsita).

Halaber, [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bigarren aldaketaren lege-proiektua](#) renatzetik doa, Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzeko zain eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren definizio zabala jasotzen duena: *“Emakumeen kontrako indarkeria matxista dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren kontrako indarkeria, familia-indarkeria, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neskatilen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste jardun tradizional kaltegarri batzuk, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, jazarpena eta genero-indarkeria politikoa, eta emakumeen edo neskatilen duintasuna, segurtasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste edozein indarkeria-mota, baldin eta nazioarteko tratatuetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko edo Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko araudietan jasota badago”*.

Estatuko legeak jasotzen duen bezalako indarkeria matxistaren definizio hain murriztuak, emakumeen egiturazko bereizkeria azterketan sartzen ez diren beste indarkeria-esparru batzuk ikusezin bihurtzen direla esan nahi du, bai eta gizarte-kontzientzian ezarri den indarkeriaren kausen eta eren ulermen mugatua ere.

Bereziki kaltegarria izan da bikote heterosexualaren harremanak, eta horietan emakumeek duten rola, indarkeria matxistaren kausa direlako ideia; izan ere, bikote bat osatzen dutenek parte hartzen duten harreman-dinamikak -bi norabidekoak direnak-eta bikote horretako gizonak norabide bakarrean gauzatzen duen indarkeria nahastuz; eta emakumeen erresistentzia eta autodefentsa indarkeria-kalifikatzailearekin gaitzetsiz -batzuetan esparru judizialek ere bai-.

1/2004 Lege Organikoa onartu zenetik denbora igaro den heinean, zenbait faktorek indarkeria matxistaren ulermen osoagoa mugatu dute; esate baterako, genero-indarkeriaren era psikologikoa ikertzeko eta frogatzeko zailtasunek, sexu-erasoei lotutako emakumeen lotsak edo indarkeria ekonomikoaren normalizazioak, salaketa bat izapidetzen hasten denean, indarkeria-adierazpen fisikoak nagusiki hartzen eragin dute.

Herritarren kontzientziaren eraketan eremu polizial eta judizialak duen garrantziak ez die biderik ematen indarkeriaren beste ikuspegi zabalago batzuei -adibidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak⁵ landutako terminologian zehaztu denari-, eta prebentzio jardueretan hobeto aplikatzen dena.

Jarduera horiek genero-binarismoa eta antzemate goiztiarreko esparruetako, bai hezkuntza formalean bai ez-formalean, eredu heteronormatiboak sakonki zalantzan jartzea faltan botatzen den arren, oso garrantzitsuak dira gazteek aisialdian eta aisialdiko espazio presentzialetan, eta batez ere birtualetan, betetzen duten eginkizunagatik.

Ezin dugu aipatu gabe utzi indarkeria ulertzeko eta izendatzeko modu desberdinek sortzen dituzten kontzeptuzko nahasteak, elkarrizketatuek behin eta berriz adierazi dituztenak. Bere garrantzia nahaste horien indarkeriaren kausen lausotzean, eta indarkeriaren maila kultural eta sinbolikoaren eraginean datza, zerbitzuen arreta-ereduei eraginez eta emakumeekin esku hartzeko eskaintzan sakabanaketa eta alderdikeria aurkeztuz.

Gainera, arreta soilik genero-indarkerian oinarritzean, hainbat egoera kanpoan uzten dira, hala nola neska gazteek, neskek eta mutilek jasandako indarkeria, eta zaildu egiten du harrera-zentroak eta topaguneak bezalako zerbitzuak sortzea, horiek berez, zailak baitira kokatzen indarkeria matxistaren ikuspegi estu batetik.

⁵<https://www.gipuzkoa.eus/documents/2556071/2587709/Terminologi%CC%81a-+Indarkeria+matxistaren+arlogo+kontzeptuak.pdf>

Bestalde, adierazten da, bikotearen indarkerian jartzen den arreta emakumeen aniztasuna kanpoan uzten dela, eta interseksionalitatea garrantzirik gabeko kontzeptu bihurtzen duela biziraun duten emakume biktimekin esku hartzeko. Era berean, elkarrizketatutako zenbait pertsonak adierazi dute kezkatuta daudela bazterketa-arriskuan edo gizarte-bazterketan egonda indarkeriari aurre egiten dioten emakumeekin, gizarteratze-prozesuan ez baita genero-ikuspegia kontuan hartzen ari.

2.2. Salaketa arretaren erdian

Lege integralak indarkeria delitu publiko bihurtu duenez, hasiera-hasieratik eztabaidagai izan zen legeak prozedura judizialari ematen dion eginkizun nagusi eta automatikoa, kontuan hartu gabe emakumeek badakiten zer dakarren bide hori hasteak edo horri aurre egiteko gaitasun duten. Zentralitate eta automatismo honen ondorioz, emakume asko damutu egiten dira askotan erasotzailearen indarkeria geldiarazten ez duen epaiketa batean sartuta egoteaz, eta, gainera, areagotu egiten da, emakumeek segurtasun-neurriak izateko bermerik izan gabe.

Bestalde, emakume askok dituzten itzaropenak, sistema judizialak, jasan duten indarkeria erakunde konpontzaile gisa jardun dezan, askotan zapuztu egiten dira, zigor-arloko prozesuan lekuko izateagatik eta akusatuaren errugabetasun-presuntzioagatik; hori dela eta, haren hitza beste elementu bat da epaiketan, eta gizonaren balio bera du. Egoera honek birbiktimizazioa dakar, ondorio larriekin; izan ere, inpunitate-sentsazioa sortzen du erasotzailearengan, eta mesfidantza biziraun duten emakume biktimegan.

Gainera, salaketa, kondena-epaia ez denean, laguntza batzuk eskuratzeko bideak izan dira, batez ere ekonomikoak, eta horrek emakumeen aukerak ere mugatu egin ditu, askok uste baitute nahitaez salatu behar dutela era guztietako babesak lortzeko. Salaketaren zentralitate horrek onurak baino arazo gehiago sortzen hasi izanaren frogak, abuztuaren 3ko, 9/2018 Errege Lege Dekretuan dugu, genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko premia neurriena⁶, zeinak 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikulua aldatzen baitu, biktimekin bide judizialekin soilik egiaztatzeari dagokionez, honako hau gehitzeko: *"Gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo Administrazio Publiko eskudunaren genero-indarkeriaren biktimezako harrera-zerbitzuen txosten baten bitartez ere egiaztatu ahalko dira genero-indarkeriaren egoerak; edo beste edozein tituluren bitartez, baldin eta hori aurreikusita*

⁶https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/08/04/pdfs/BOE-A-2018-11135-E.pdf

badago eskubideetako eta baliabideetako bakoitza eskuratzeko bidea arautzen duten arau-xedapen sektorialetan".

Nabarmenezkoa da Osakidetza egiten duen ahalegina, osasun-arloko langileek - indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen %100 bertara iristen da, nahiz eta beti ez duten beren egoera esplizituki aitortzen, ezta laguntza zuzenean eskatzen ere-, indarkeriaren prozesua uler dezaten eta salaketa aukera bakar gisa erabil ez dezaten, ezta emakumeen borondatearen aurka ere. Hala, 2019an, gida bat argitaratu zuen, langile hauek osasun-arloan egin daitezkeen jardueri buruz duten ezagutza zabaltzeko⁷.

Bestalde, 2020ko abenduan, Emakundek eta Gipuzkoako Genero Indarkeriaren Batzorde Probintzialak [informazio-liburuxka](#) bat argitaratu dute, genero-indarkeriaren biktimek zigor-arloko prozesuan dituzten eskubide nagusiak jasotzen dituen, eta [genero-indarkeriaren biktimentzako prozesu penalarri buruzko informazio-gida](#) bat ere. Material hauei buruzko informazio-oharraren arabera, "bi dokumentuen helburua, biktimek eskuragarri duten hizkuntza eta formatu grafiko batean, zein diren prozesu judizialean dituzten eskubide nagusiak, eta zein fasetan garatzen den prozedura epaitegi edo auzitegian azaltzea da", prozedura hauek biziraun duten emakume biktimentzako ezezagunak direlaren eta bizi duten indarkeriatik ateratzeko bide hori erabiltzea erabaki baino lehen informazioa jasotzeko beharraren aitortpen esplizitu gisa uler daitekeena.

Hala ere, 2005. urteaz geroztik salaketa erakunde askoren politiken eta esku hartzeko ereduaren erdian dagoela kontuan hartuta, eta polizia-erakundeek jasotzen jarraitzen dutela sistema publikoari laguntza eskatzen dioten biziraun duten emakume biktima gehienak; uste dugu salaketa indarkeriatik ateratzeko bitarteko gisa, eta ez berez helburu gisa ulertzea iristeko aldaketa, motela eta, seguruenik, zaila izango dela, hainbat lekutatik sor daitezkeen erresistentziengatik. Zalantzarik gabe, pixkanakako aldaketa hau lortzen lagun dezakeen elementu bat sarrerako ate berriak irekitzea da, hau da, emakumeei beren indarkeria-bizipenak lantzeko aukera emango dieten zerbitzuak edo espazioak, bizipen horiek halakotzat hartzeko eta banakako irtenbiderik onenak bilatzeko, irtenbide sozialak, polizialak edo judizialak ez ezik, errazten dituen testuinguru batean.

⁷https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia_violencia_genero/eu_def/adjuntos/guia_vg_eu.pdf

2.3. Salaketaren datuak eta laguntza-eskaera Errenterian

Atal honetan, salaketari eta hainbat zerbitzuri laguntza eskatzeari buruzko datu batzuk aurkezten ditugu, alderdi horiek udal-mailan duten portaerari buruzko ikuspegia ematen digutenak. Datuek azterketa sakonki egiteko aukerarik ematen ez duten arren (ez baitatoz bat urteetan, ez eta artatutako indarkeria-esparruetan ere), baina, hala ere, udalerriko biziraun duten emakume biktimen laguntza-eskaerari buruzko ikuspegia ematen digute.

1. taula: EUSTAT, Ertzaintza, Gizarte Zerbitzuak eta Emakumeen Etxea erakundeen arabera artatutako kasuak eta emakumeak, guztira. 2017-2020ko lehen seihilekoa

	2017	2018	2019	2020
EUSTAT ⁸	97	134	137	-----
ERTZAINZA ⁹	90	103	114	-----
GIZARTE ZERBITZUAK ¹⁰	-----	24	20	-----
			martxoa/abendua	urtarrila-uztaila
EMAKUMEEN ETXEA ¹¹			20 Donostiatik eratorriak: 5	32 Donostiatik eratorriak: 11

Datu hauetatik ondorio batzuk atera ditzakegu:

- 2018an¹², Errenteriako salaketa-tasa¹³ 0,54koa da, Euskadi osokoa baino pixka bat baxuagoa (0,8, Estatistika Institutu Nazionalaren (INE)¹⁴ arabera), eta Gipuzkoak erregistratzen duenetik hurbilago dago, 0,52¹⁵ baita.
- EUSTATen txostenean jasotako biktimizazioek eta Ertzaintzak erregistratzen duen biktima-kopuruak goranzko joera dute: 2017an baino 13 emakume gehiago 2018an

⁸Iturria: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0016400/ti_victimizacion-numero-de-casos-segun-tipo-de-violencia-contras-las-mujeres-por-ambitos-territoriales-de-la-ca-de-euskadi-2019/tbl0016490_e.html 2021eko otsailaren 1ean kontsultatua. Datuak biktimizazioei buruzkoak dira (kasu kopurua).

⁹ Iturria: Emakunde emandako datuak, 2020ko irailaren 24a. Datuak biktimei buruzkoak dira (emakumeen kopurua).

¹⁰ Iturria: Emakumeen Etxeak emandako datuak, 2020ko azaroaren 11n. Datuak emakumeen kopuruari buruzkoak dira.

¹¹ Iturria: Emakumeen Etxeak emandako datuak, 2020ko azaroaren 11n. Datuak emakumeen kopuruari buruzkoak dira, eta 2012ko urritik 2020ko ekainera bitartekoak dira.

¹² Urte hau aukeratu da autonomia, foru eta udal mailako tasak alderatu daitezkeelako.

¹³ Tasa koefiziente estatistiko bat da, problema baten kantitatearen eta maiztasunaren arteko erlazioa adierazten duena. Kasu honetan, 14 urtetik gorako 1.000 emakumeko salaketa kopurua adierazten da.

¹⁴ https://www.ine.es/prensa/evdvg_2018.pdf 6/22orr. (Gaztelaniaz)

¹⁵ Gipuzkoako eta Errenteriako tasak geuk egin ditugu, biktimen eta biztanleen datuetan oinarrituta.


eta 2018an baino 11 gehiago 2019an; datu hauek%10etik gorako urteko hazkundera adierazten dute, salaketa ofizioz jartzen denean edo salaketa bat jartzen duten emakumeen kopuruan.

- Kezkagarria da 2018an 31 emakumek eta 2019an 23k, urtean zehar, eraso bat baino gehiago jasan dutela egiaztatzea. Zalantzarik gabe, emakume horiek indarkeriatik irteteko egoera zailago baten eraginpean daude, agian arrisku handiago batekin.
- Emakumeen Etxeak aintzat artatutako indarkeria-motak, gainerako zerbitzuenak baino ugariagoak dira; izan ere, genero-indarkeria, lan-arloko jazarpena (orokorra, sexuala), dibortzio gatazkatsuak, etxeko indarkeria, sexu-erasoa, sexu-jazarpena eta esplotaziorako salerosketa barne hartzen baititu. Hala ere, Emakumeen Etxea indarkeria matxistetatik biziraun duten emakume biktimentzako erreferentzia-gune bihurtu dela ikusten da, eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek eskainitako baliabideak osatu dituela, egiten diren deribazioen kopuruak gora egiten duela begiratzen badugu.

Beste aldagai batzuen analisiak honako informazio hau ematen digu:

- Salatutako indarkeria-motari dagokionez, ikusten da genero-indarkeriaren biktimizazio-kopuruak (EUSTAT) eta biktima-kopuruak (Ertzaintza) aise gainditzen dituztela etxeko indarkeriari eta sexu-askatasunaren aurkako delituei buruzko datuak.

1. grafikoa: Indarkeria-motak biktimizazio eta biktimen arabera 2017 eta 2019 bitartean



Iturria: EUSTAT eta Ertzaintza

- Adinari dagokionez, Ertzaintzaren datuen arabera, salaketak 21 eta 50 urte bitartekoetan biltzen dira. 65 urtetik gorako emakumeek ez dute ia salaketarik jartzen, nahiz eta udalerriko emakume guztien %26,6 diren.

2. taula: Biktimak guztira, adinaren arabera. 2017-2019

ADINA	URTEA		
	2017	2018	2019
14 BAINO GUTXIAGO	1	4	2
14TIK 17RA	3	3	4
18TIK 20RA	6	5	9
21ETIK 30ERA	19	19	31
31TIK 40RA	21	22	23
41ETIK 50ERA	20	29	35
51TIK 64RA	16	13	5
65 EDO GEHIAGO	4	7	5
EZEZAGUNA	-	1	-
GUZTIRA	90	103	114

Iturria: Segurtasun Saila

- Jatorriari dagokionez, Emakumeen Etxera joan diren emakumeen %25 atzeritarrak dira, ia guztiak erkidegotik kanpokoak. Bestalde, nahiz eta daturik zehaztu ez, gizarte zerbitzuek adierazi dute artatu dituzten emakume asko atzeritarrak direla, ezegonkortasun ekonomikoko egoeran, bizi duten indarkeriaz gain.

Adierazle-eskasiak ikuspegi zehatzagoa izatea galarazten digun arren, badirudi emakumeen profil desberdinak marrazten direla, nolabaiteko laguntzaren baten bila hurbiltzen diren zerbitzu publikoen arabera. Nahiko argia da bizi izandako indarkeria salatzen duten emakume gazte eta helduena, beste txosten batzuen arabera, proportzio handi batean amak baitira.

Bestalde, gizarte zerbitzuetara jotzen duten emakumeak, batez ere, gizarte eta ekonomia-baliabide handiak behar dituzten emakume migratuak dira; gizarte langile batzuen irudipenaren arabera, emakume horiek, migratzean, beste errealitate batzuk ezagutu dituzte, eta bizi duten indarkeria-egoera hauteman eta egoera horretatik ateratzeko alternatibak bilatu ahal izan dituzte. Hala ere, Emakumeen Etxera hurbiltzen diren gehienak emakume autoktonoak dira, eta aholkularitza legala eta eremu terapeutikoa behar dute, bai eta beste emakume batzuekin elkartzeko gune feminista bat ere.

Ibilbide hauek ez daude oraindik behar bezala markatuta, baina badirudi datu elkarrizketetatik ateratako zenbait datu eta elementutan oinarrituta marrazten direla. Ziur dagoena da ibilbide horiek emakumeek aukeratu dituztela, udal-politika esplizitu eta argi batek eskaini baino gehiago; hau da, emakumeak zerbitzu horietara hurbiltzen dituen ez da ezagutza informatu bat, baizik eta behar bat betetzeko itzaropena, hala izan daitekeela entzun dutelako, eta, kasu askotan, saiakuntza eta akats baten bidez iristen dira haietara.

Gainera, erakundeen artean ez dagoenez behar berriei aurre egiteko aukera ematen dien ekintza koordinaturik hauteman ahala, litekeena da emakumeek ibilbide oso laburrak egitea, zerbitzu bakar batek edo bik osatutakoak, eta horrek ez die bermatzen bizi dituzten indarkeria-egoeretatik irteteko behar adina denbora edo sare publiko izango dutenik. Baliteke, arreta publikoko sareko ibilbide labur horien bidez, emakumeek eraso puntual bat edo tratu txarren gertakariren bat gainditzea harreman batean, baina ez da segurua indarkeriari buruzko ikuspegia aldatzeko eta hura erreproduzitu eta biktimizatzen duten eredu personal, erlatibo, sozial eta kulturalak onartzeko behar adina baliabide eskuratzea. Azken batean, ez dute ibilbide osatzailerik egiten.

2.4. Sinesgarritasunaren ebaluazioa, arretaren zeregin gisa, eta banakako esku-hartze eredua

Aurreko alderdietatik eratorrita, biziraun duten emakume biktimekin esku hartzeko ereduak ia modu eksklusiboan jardun du zeregin batean (ebaluazioa) eta arreta modu batean (banakakoa). Polizia-ateetatik nahiz gizarte zerbitzuetatik sartzen badira, eredu horrekin topo egingo dute; gainera, zerbitzu espezializatuak emateko foru-zentralizazioak sarbidea eta arreta emateko moduak mugatzen ditu.

Ebaluazioa, askotan, emakumeen lekukotzaren egiantza egiaztatzean oinarritzen den zeregina da, eta horrek, berez, ikuspegi enpatiko eskasa eskatzen du, biziraun duten emakume biktimen defentsa-erantzunak eragin ditzakeena. Ez dira gutxi aldiak, gizarte zerbitzuek, zerbitzu orokorrek zein espezializatuak, balioespen "objektiboko" eta erraz aplikatzeko tresnak eskatzen dituztela, lan konplexu bat egiteko. Bestalde, emakumeen sinesgarritasuna ebaluatzean, indarkeria harreman-arazo gisa bideratzeko arriskua dago, eta, beraz, "bi aldeak" entzutea planteatzekoa, hau da, biktima eta erasotzailea berdintasun-egoeran baleude bezala.

Emakumeek kontatzen dutena egia den ala ez jakitea helburu ez duen ebaluazio batek honako hauek ikertu behar ditu, besteak beste, indarkeriak eragin duen kaltea, biziraun duen emakume biktimaren sintomak eta ondoezak, indarkeria horri buruz duen kontzientzia, indarkeria horri aurre egiteko modua, defentsa-estrategien eraginkortasuna, laguntza-sareak, premia larrienak, indarkeriak ingurunean duen eragina.

Prozesu judiziala eta indarkeriatik ateratzean betetzen duen eginkizuna sakonki landu ziren elkarrizketetan; izan ere, zerbitzu hori da, hain zuzen ere, gertakarien egiantza ebaluatu eta epaitzeko eta epaia emateko zeregina duena. Hori dela eta, justizia arloa, neurri handi batean eta hainbat modutan, biziraun duten emakume biktimak berriro biktimizatzen dituen zerbitzu moduan nabarmendu da: azpiegitura desegokia, prozesu geldoak, banakako beharretara egokitu gabeko epaiketak, neurri azkarrak, baina eraginkortasun gutxikoak, koordinaziorik ez emakumeei arreta ematen dieten gainerako zerbitzuekin...

Eta esku-hartzearen modalitateari dagokionez, zerbitzu espezializatuen eskaintza handiena, bakarra ez bada ere, banakako arreta da; batik bat dokumentatua dagoen esperientziari alde batera uzten zaio talde-lanak inguruneko diskurtsoen eta barneratutakoen garrantziari zilegitasuna kentzeko; indarkeriatik eratorritako emakumeen jarrera, jokabide eta are

ondoeza jakin batzuk agertzen dituzten diskurtsoak, hala nola indarkeriaren kausak, eta egoera horretatik ateratzearen erantzule bakarrak egiten dituztenak.

2.5. Joera markatzen duen salbuespen bat Errenterian: Emakumeen Etxea

Udaleko bigarren Berdintasun Planak, Errenteriako Emakumeen Etxea sortzea ahalbidetu zuen, topaketarako eta eztabaidarako, kontzientzia feministarako eta emakumeen arteko harremanak, sareak eta lankidetzak bultzatzen dituen aktibismo soziopolitiko feministarako erreferentzia-lekua. Halaber, baliabideak, ikastaroak eta dinamikak eskaintzen zaizkie indarkeriari aurre egin eta/edo aurre egiteko lan egin nahi duten emakumeei.

Emakumeen Etxea indarkeria matxistatik biziraun duten emakume biktimei arreta emateko berriazko lekua ez izan arren, erreferente bihurtu da arlo horretako lanean, bertan ikuspegi feminista duten zerbitzu espezializatuak eskaintzen baitira.

Hala, ebaluazioan honako hauen garrantzia nabarmentzen da:

- Indarkeria matxistatik gabeko bizitza baten aldeko emakumeen Autolaguntzarako Taldea, eskualde-mailan existitzen dena eta esku-hartze komunitarioko esperientzia bat dena.
- Indarkeria ikusezinari eta emakumeen ondoezari buruzko beste ikastaro batzuk, indarkeriaren inguruan duten pertzepzioa zabaltzea ahalbidetu dutelako.

Indarkeria matxistaren lan-ildoari dagokionez, Etxean ematen diren baliabide espezializatu hauek nabarmentzen dira:

Arreta psikologikoa: Errenteriako emakume guztiei zuzendutako zerbitzua da, adingabeei izan ezik, eta 40 minutuko¹⁶ arreta eskaintzen du. Eskaintzen den laguntza psikologikoa emakumearekin jarraipena egitea, haren bilakaera ezagutzea eta Errenteriako emakumeek aurre egin beharreko indarkerien bide, ibilbide eta modu desberdinei buruzko datu garrantzitsuak eskaintzea bermatzen du.

Arreta psikologikoko beste zerbitzu bat ere badago, sexu-aholkularitzan enfasia jartzen duena eta 14 urtetik aurrerako neskei arreta ematen diena.

¹⁶Konfinamendu-aldiaren ondorioz, zerbitzu horren eskaerak gora egin zuen, eta, beraz, 2020ko hilabete batzuetan arreta-denbora 30 minutura murriztu zen.

Orientazio juridikoa: Abokatu batek eskainia, diskriminazioa, babesgabetasun eta indarkeria matxista egoerei aurre egin behar dieten emakumeei aholku emateko. Astean bi egunetan eskaintzen da, saio bakoitza 30 minutukoa. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek zerbitzu hori eskuratzen laguntzen dute, eta aholkularitza mota hori behar duten kasuak ere zerbitzu horretara bideratzen dituzte.

Emakumeen Txokoaren funtzionamendua nabarmentzeko elementu bat mugimendu feministarekin duen harreman sistematikoa da; izan ere, dinamika oso aktiboa duen koordinazio-organo bat egotean adierazten da, bai kanpainak antolatzeari dagokionez, bai indarkeria matxistari erantzuteko ekintzak eta estrategiak proposatzeari dagokionez. Horri esker, harrera ona egiten zaio espaziora iristen den emakume berri bakoitzari, eta, horrekin batera, emakume-sare bat eskaintzen da, bizipenak, autozainketak, literatura, batukada eta abar partekatzeke.

Horri guztiari esker, 2019ko martxoan abian jarri zenetik, eta urte hartako urritik aurrera modu egituratuagoan, emakume asko hurbildu dira Emakumeen Txokora, beste erakunde publiko batzuekiko espazio desberdina bila zebiltzanak, eta aurkitu zutena. Horrek guztiak adierazten du formatuarekin asmatu egin dela eta indarkeria-egoeretan arreta jasotzeko eskariak pixkanaka gora egin duela; izan ere, azken hilabeteetan, Errenteria inguruko udalerrietako gizarte zerbitzuen erabiltzaile diren emakumeak Emakumeen Etxera bideratzen ari dira.

Hala ere, Emakumeen Etxeari buruz adierazten diren alderdi positibo guztiak kontuan hartuta, hobetu daitezkeen alderdi batzuk hauteman dira; lehenik eta behin, horien existentzia modu zabalagoan hedatu beharrek hasita, arreta ematen duten langileek nahiz herritar guztiek, modu zabalagoan ezagutu dezaten; halaber, kezka ikusten da zenbait emakume-sektorek espazio horretara ez bertaratzea: emakume gazteak eta, bereziki, emakume migratuak. Bestalde, itzulpen-zerbitzurik ez izatea oztopo izan daitekeela ikusten da, azken horiek parte hartzeko, eta ez soilik Emakumeen Etxeari dagokionez, eta premiaz hobetu beharreko zerbitzuetako bat dela adierazten da.

2.6. Erakundeen arteko koordinazioa

Udaleko Berdintasun Planaren ardatz hau garatuko den testuinguruaren ikuspegia osatzeko, beharrezkoa da azpimarratzea garrantzitsua dela biziraun duten emakume biktimei arreta ematen diharduten zerbitzuen arteko koordinazioa. Zalantzarik gabe, indarkeriari, haren kausei eta ondorioei buruzko ikuspegi desberdinekin lan egiteak, bai eta esku hartzeko eredu desberdinak ere, arriskua dakarrela arretarentzat, eta berriro biktimitza dezake, hori saihesteko mekanismorik adosten ez bada.

Koordinazioa, bai udalekoa bai erakunde artekoa, lan nekeza da, gatazkarik gabea, eta haren zailtasuna areagotu egiten da hari eusten dioten egiturak eta hura gidatzen duten figurak argi edo behar bezala legitimatuta ez daudenean. Salaketa jasotzeko lanaren zeregina polizia-kidegoei dagokien bitartean (Ertzaintzaren unitate bati, genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren kasuan, baina beste esparru batzuetan parte hartzen duten beste unitate batzuekin), baina kasuen erantzukizuna gizarte zerbitzuetan dago, oinarritzat edo espezializatueta (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko, urriaren 6ko, 185/2015 DEKRETUAK zehazten duenaren arabera), eta, aldiz, berdintasun-politikak -indarkeriarik gabeko bizitzak eraikitzeko udal-jarduerak sustatzen diren arloa- sortu berri diren eta/edo erakundeetan garrantzi txikia duten udal-arloetatik gidatzen dira... Egoera horien ondorioz, koordinazioa toki-mailako erakunde horien buru direnen borondate politikoaren mende dago gehiago, araudi argi baten mende baino.

Erreterrian, erakundeen arteko koordinazioa ez da ez arina ez erregularra izan; aitzitik, une zehatzetara mugatu da. Koordinazio Protokoloak¹⁷ eta jarraipen mekanismo bat sortzeko proposamenak denbora eta energia inbertsio handia ekarri dute udal langileen aldetik, baina ez dute espero zen emaitza eman. Emaitza eskasak izan ditu, biziraun duten emakume biktimei laguntzeko jarduera-irizpide komunak ezartzeari dagokionez, eta, gainera, kasuan kasuko erakundeetan lan egiten dutenen inplikazio-mailaren mende egoteaz gain, hainbat faktoreren eraginpean egon dira, hala nola lan-mugikortasunaren eta zerbitzuetan lan egiten duten langileen indarkeriaren arloko berriazko prestakuntzarik ezaren eraginpean.

Langile teknikoen prestakuntza falta hori ere adierazi da ebaluazioan, eta, nahiz eta hainbat erakundeetan (Osakidetza eta Emakunde, Jabetuz-eko online ikastaroarekin, Arkauteko Akademia) prestakuntza-eskaintza bat dagoela onartzen bada ere, koordinazio eraginkorra sortzeko, ezagutzak ez ezik, prestakuntza emakumeei arreta emateko estrategia komun bat lantzeko prozedura egokiak ere behar direla aipatzen da.

¹⁷ 2015ean egina. Prozesu hau hasi baino hilabete batzuk lehenago, 2020an, Ertzaintzak protokolo hori sinatuta itzuli zuen.

Hala, bada, indarkeria matxistaren inguruan azken urteetan egin den lanaren testuinguruak kontraesanek eta ikuspegi desberdinez josita dago-batzuetan aurkakoak- tartean diren teknikarien artean, beren laguntza-itxaropenetan zapuztutako emakumeen artean, indarkeriaz duten pertzepzioan nahasita dauden herritarren artean eta, batzuetan, gaiari buruzko ezagutza urria duten agintarien artean.

Testuinguru hau, "Indarkeriarik gabeko bizitzak" ardatzeko programa kokatzen den esparrua izateaz gain, hurrengo atala osatzen duten emaitza nagusien ebaluazio-gida ere izan da.

3. "INDARKERARIK GABEKO BIZITZAK" ARDATZAREN KONTZEPTU-ESPARRUA

Emakumeen aurkako indarkeria matxista arazo zaharra da, indarkeria adierazten denetik dago indarkeria horren adierazpen nabarmenenen aurkako borroka, nahiz eta adierazpen kolektiboak berriagoak izan. Indarkeria horri buruzko teoriak eta praktikak 80ko hamarkadako feminismoaren olatuan agertzen dira, eta, harrezkero, mugimendu horrek ez die utzi indarkeria definitzeko eta hari aurre egiteko proposamenei.

Hala ere, indarkeria horren aurka egiteko politika publikoak berriagoak dira. Euskadin, bi data garrantzitsu daude horri dagokionez: 2001 eta 2009. Urte horietan sinatu ziren, hurrenez hurren, I. eta II. Erakunde arteko Akordioa, etxeko indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko (kontuan izan behar da indarkeriaren izenak berak adierazten duela nola kontzeptualizatzen zen indarkeria matxista garai hartan); akordio horiek, hain zuzen ere, markatzen zuten EAEko Administrazioaren eskumen-maila desberdinek emakumeei emandako arretaren ibilbidea.

Estatu mailan, 2005. urtea, abenduaren 28ko, genero indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoarekin ireki zen, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria salatzen duten emakumeei laguntza emateko bidea ezartzen duena.

XXI. mendea bereziki emankorra izan da Europa, estatu, erkidego eta foru mailako araudien prestakuntzan, eta hauen errepasoa orrialde hauetan sartzen dena baino leku gehiago beharko litzateke, baina dokumentu honen 4. Eranskinean kontsulta daiteke.

Azken bi hamarkadetan, politika publikoak arazo honi erantzuten saiatu dira, eta ez dira beti bat etorri mugimendu feministaren ikuspegiekin, ez eta emakume biktimen beharrek ere; ondorioz, emakumeek erakundeen balizko eskaintzetara egokitu behar izan dituzte beren itxaropenak, eta sarritan gabezia handiak izaten dituzte.

Errenteriako emakume eta gizonen arteko II. Berdintasunerako Plana (2013-2016) onartu zenetik, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ezagutzak asko egin du aurrera, eta kontzeptu, legedi berri (nazioartean, bai Nazio Batuetan, bai Europar Batasunean, estatuan eta autonomia-erkidegoan), gero eta ikusgarriagoak diren errealitateei erantzuteko zerbitzu berri, etab. ekarri ditu.

Tokiko programa hau egiteko, emakumeen eta gizonen berdintasunerako *Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2/2015 Foru Arauan* jasotako indarkeria matxistaren definizioari berrekin zaio. Horren arabera:

“Indarkeria matxista izango dira sexu/genero/sexualitate sistemaren heteronormaltasunari aurre egiten dioten gorpuztzen aurkako kontrol, eraso, ukapen eta inposaketa zuzen, egiturazko eta sinbolikoak, hala nola, transgreditu gabe ere, bere baitan boterearen harremanak jasaten dituzten objektua diren, emakumeen, gorpuztzen kontrakoak. Bi kasuetan haurtzarotik adierazten dira eta bizitza osoan zehar mantentzen dira. Indarkeria matxista da indarkeria sexista, baina hala dira bai eta ere beste indarkeria mota batzuk, nola transfobia, lesbofobia eta homofobia”.

Sexua/generoa/sexualitatea sistema menderatzailatik baztertzeak sistemaren zapalketaren adierazgarri dira, baina, horrez gain, horiek gorpuztzen dituzten pertsonen aurkako gaitzespen soziala eta adierazpen-indarkeria sustatzen dituzte. Komunitate inklusibo batek ezin ditu tokiko politiketatik kanpo utzi arbuizatzeko eta indarkeria ekar dezaketan bazterketak, eta, besteak beste, sistema horretatik eratorritakoak, nahiz eta emakumeek beren nortasunagatik jasaten duten indarkeria eta feminitatearekin lotutako adierazpenen aurkako erasoak azpimarratuko dituen.



Horregatik, ardatz honetan, indarkeria matxista edo indarkeria sexista jasaten eta aurre egiten duten emakumeei ematen zaien arreta lehenetsiko da, kausa emakume izatean datzala ulertuta, haien genero-adierazpenak eta sexualitatea edozein direla ere, eta haien helburua eta ondorioa emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasuna iraunaraztea da.

Kontzeptu-esparru honek, halaber, ideia hau du abiapuntu: indarkeria matxistak, egitura, sinbolo eta pertsonen arteko dimentsioetan, sexu/generoa/sexualitatea sistemak sortzen dituen desberdintasunak ditu oinarri, baina horiek desagerrarazteko lana ezin da mugatu berdintasunerako politikak egitera; aitzitik, indarkeria horren aurkako politika zehatzak txertatu behar ditu.

Beste herrialde batzuetako esperientziak eta horri buruzko azterlanek erakusten dutenez, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren gizarte-arrakalak murrizten diren heinean, bizi duten eta desberdintasunak normalizatzen eta/edo justifikatzen zuen indarkeriari buruzko emakumeen kontzientzia areagotzen da. Hala, gizarte-harremanen berregokitze horren aurrean ematen den erantzunak eta, batez ere, emakumeen autonomia handitzeak, nahiz eta eremu guztietan eta guztientzat berdina ez izan, erresistentziak eta erantzun bortitzak sortzen ditu, baita indarkeria modu berriak ere. Eskubide gisa bizi izan diren gizon-pribilegioak zalantzan jartzea, indarkeriaren adierazpiderik ikusgarrienak ez ezik, hari ikusezinezko amarauna ere sortu baitute; beti modu linealean aurrera egiten ez duen prozesu sozial bat da.

Ikus dezakegu, azken urteotan, gizonen beren bikotekideen edo bikotekide ohien aurka egiten dituzten eraso hilgarriak areagotu egiten direla harremana haustea erabakitzen dutenean, harremana hautsi dutenean edo bikote berriak eraikitze bidean doazenean, hau da, gizon horiek onartu nahi ez dituzten erabakiak adierazten dituztenean.


Era berean, ikusten dugu egiturazko indarkeria horren biktimak aintzat hartzen direla, nahiz eta beti ez izan arreta jasotzeko modurik onena, emakumeen aurkako erasoen ondorioak jasan eta sortatzen baitituzte. Baina biktima zuzenak emakumeak badira, badaude beste **bikario** batzuk (indarkeria zuzenean jasaten dutenak, haiei kalte egiteko modu gisa), **eraginpean egoteagatik** (etxean gurasoekin edo amen bikotekide berriekin bizi diren neskatok, mutikoak, nerabeak), **loturagatik** (dinamika horrek eragiten dien familia edo harreman-inguruneak) edo erasotzailearen biktimak oro har edo eraso jakin baten biktimak **defendatzeagatik**.

Zuzeneko biktima diren emakumeen behar guztiei erantzutea eskatzen du arreta integralak, baina baita indarkeria horrek eragiten dien biktima guztiei ere. Horren ondorioz, berehala **zabald**u behar da **biktimaren kontzeptua**, definizio judizialak gaindituz, indarkeria horrek hainbat modutan kaltetutako bizikidetzak konpontzera iristeko. Arreta egoki batek, osatzaileak eta ahalduzkoak, indarkeria jasaten duten eta indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen erantzunak ezagutu behar ditu. Emakumeak, aldi berean, biktimak dira eta biziraun dute edo biziraun duten emakume biktimak dira.

Biktimak dira, pertsona arteko mailan beste pertsona batzuen indarkeria jasaten dutenak, baina baita indarkeria hori sostengatzen eta erreproduzitzen duten egitura eta kultura ere. Alde horretatik, erasotzailearen eta indarkeria hori erazteko lan egiten ez duten erakundeen betebeharra da eragindako kalteak konpontzea eta horren berehalako eta bitarteko ondorioak konpontzea. Biktimizazioak ez die inoiz emakumeen ezaugarri pertsonalei erantzuten, hau da, ez dira otzanak, ez dute autoestimu baxurik, eta ez dira zigortu behar ohiko genero-eskemak hausteagatik, eta ez dute merezi jazarpenik jasaterik lan edo hezkuntza-arloan kristalezko sabaia hausteagatik, eta are gutxiago haien genero-adierazpideetan desberdinak izateagatik.


Biziraun dute, indarkeriari aurre egin diotelako dituzten baliabideekin, urriak edo handiak, defentsa-estrategia gisa men egitetik hasi eta gatazka edo negoziatziora arte. Baliozkoak dira abusuzko harreman pertsonalak, lanekoak, hezkuntzakoak, gizartekoak, eta abarretan salbu

egoteko bide ematen duten era guztiak. Ildo horretan, arreta-politikek ahduntze-prozesuak indartu behar dituzte emakume bakoitzaren historia partikularren barruan.



4. “INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK” ARDATZAREN DENBORA ETA GAI-ANTOLAKETA

Kontzeptu-esparru honekin eta deskribatutako testuinguruarekin bat etorritik, indarkeriarik gabeko bizitzak eraikitzeke jarduerak-ardatzak hiru denbora-esparrutan antolatzen da: epe luzeko ikuspegia, gutxienez **hamarkada** baterako, indarkeriaren testuinguruaren alderdi birbiktimizatzaileenetan eraldatzeko helburuarekin; **hiru urteko** plan bat, jarduerak sostengatzeko lanak (sentsibilizaziokoak, prebentziokoak, arretakoak eta koordinaziokoak) eta ekimen berriak konbinatzen dituenak, hau da, hasiera batean programa pilotuak zehazten dira, eta urtero ebaluatuko dira, lortu nahi den aldaketa estrategikora egokitzeko, eta handitu ahal izango dira, lehenengo bien ebaluazioaren emaitzen eta toki-mailan instalatutako gaitasun operatiboaren arabera.




Era berean, hiru urteko plana lau lan-ildotan garatuko da:



Ildo horietako bakoitza aurrerago garatuko da, hurrengo hiru urteetan lortu nahi dena eta helburu horietan aurrera egiteko neurri batzuk kontuan hartuta.

Bestalde, eta garatutako testuingurua eta kontzeptu-esparrua kontuan hartuta, 2021 eta 2023 artean garatu beharreko lehenengo bi ekimenek zerikusia dute, batetik, arreta-ereduan aldaketa batekin, ebaluazioa esku-hartzearen helburu gisa baztertuko duena, eta, bestetik, emakume bakoitzak indarkeriari aurre egiteko garatu dituen estrategiak indartzera bideratuko dena, banakako eta taldeko ahalduntze-prozesuak sustatuz; eta, bestetik, indarkeriarik gabeko bizitzak ahalbidetuko dituen tokiko ingurune bat eraikitze beharrezkoak diren erreparazio-neurriak sustatuz.

Azkenik, ardatzaren atal gisa, eguneroko lanerako gida gisa balio duten bi tresna proposatzen dira: batetik, printzipio estrategikoak, eta, bestetik, adierazle-sistema eta horien egiaztatze-iturriak, ardatz horren garapenari jarraipena egiteko.



4.1. Printzipio estrategikoak

- Ingurune ulergarria eta abegitsua sortzea biziraun duten emakume biktimekiko, haien kontakizunen egia aldarrikatuz. "NIK SINESTEN DIZUT", Errenteriako agintari eta herritarren "SINESTEN DIZUGU" kolektibo bihurtu behar da.
- Babesteak esan nahi du biziraun duten emakume biktima guztiei laguntzea; zuzenak, bikarioak, eraginpean daudenak, defendatu dutenak, indarkeriak nola eragiten dien ulertzeko, indarkeriarik gabeko bizitzak ahalbidetzen dituzten inguruneak sortzeko.
- Sinesteak esan nahi du edozein zerbitzu publikori berehalako eta epe luzeko beharrak antzemateko laguntza eskatzen dioten biziraun duten emakume biktimei laguntzea, behar horiek zentroan jarriko dituzten eta eskura dauden baliabideak ahalik eta hobekien erantzuteko bideratuko dituzten esku-hartze prozesuak bultzatzeko.
- Erreparazioak esan nahi du indarkeriaren egiturazko izaera aitortzea eta biktimei edozein ezaugarri pertsonal esleitzeari uztea, indarkeriaren kausa balira bezala, eta gai horiek herritarrek sentsibilizatzeko elementu nagusi bihurtzea.
- Erreparazioak esan nahi du memoria kolektiboa eraiki behar dela, emakumeek historian zehar bizi izan duten indarkeriari emandako erantzunak aintzat hartuta, gaitasun horiek nabarmenduko dituzten kontakizun ahalduntzaileak eraikitzeko.
- Erreparazioak ahotsa ematea esan nahi du, ahal den modu guztietan kontakizunak lehen pertsonan egitea bultzatzea, biziraun duten emakume biktimen lotsari eta erruduntasunari aurre egiteko.
- Ahalduntze-prozesuak osatu eta sustatzeak esan nahi du indarkeriaren erantzukizuna betearazle pertsonaletan eta zigorgabetasuna sortzen duten egitura eta mekanismo instituzionaletan jartzea.

1. ILDOA. PREBENTZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIA HARTZEA

Prebentzioa eta sentsibilizazioa funtsezkoak dira indarkeria matxistarik gabeko bizitzaren alde lan egiteko. Kontuan hartu behar da lotura zuzena dagoela indarkeria horren jatorriak ulertzearen eta genero-harremanetako portaeren artean. Azken helburua izango litzateke emakumeak gutxiesten dituzten eta emakumeen eta gizonen funtzioak estereotipatzen dituzten aurreiritzi, ohitura eta tradizioekin amaitzea, bai eta maskulinitate hegemonikoari eta gizonei beren jatorrizko eramaile gisa balio handiegia ematen dieten botere-harreman asimetrikoekin ere.

Diagnostikoan zehar, **detekzio goiztiarra** egitearen garrantzia nabarmendu da, prebentzioa landu eta hasieratik esku hartzeko. Esku-hartzean bide zuzena zehaztearen garrantzia nabarmentzen da. Alde horretatik, ikastetxeak funtsezko eremu estrategikoa dira lan-ildo hori garatzeko, eta ildo horretatik jarraitu behar da. Hala, udalerrian, alde batetik, Udal Hezkuntzako Kontseilua dago, eta, bestetik, Hezkuntza Mahaia (bertan jarduera zehatzak antolatzen dira, hala nola martxoaren 8koa eta azaroaren 25ekoa).

Baina funtsezkoa da, halaber, hezkuntza ez-formaleko udal-espazioak baitan hartzea, hala nola gaztegunek, gazte-elkarteak, aisialdi-elkarteak edo gazteria biltzen diren udalerriko beste gunek batzuk, baita gizarte-sareak eta bestelako gunek birtualak ere. Horretarako, ezinbestekoa izango da Gazteria, Kultura edo Euskara sailak ere inplikatzeko.

Bestalde, prebentzioak ez du gazteria soilik kontuan hartu behar; aitzitik, beste udal-zerbitzu batzuk ere inplikatu behar dira, hala nola Hirigintza saila, eremu ez-segurak eta horrek emakumeentzat dakartzan arrisku-egoerak saihesteko irtenbide zehatzak eman ditzaten, eta, hartara, udalerrian indarkeria matxistarik gabeko espazio bat sor dadin.

Diagnostiko-fasean ateratako ondorioetatik abiatuta, honako lan-ildo hauek ezarri dira **prebentzio, sentsibilizazio eta detekzio goiztiarrekin** jarraitzeko:

JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOA	ZER LORTU NAHI DEN	NOLA LORTUKO DEN
<p>1. Prebentzioa, sentsibilizazioa eta kontzientzia hartzea</p>	<p>Indarkeria matxista egiturazko arazo gisa azaltzen duten tresna kontzeptualak sortu eta erabiliz, eta kulturaren bidez normalizazio sendoa lortuz (indarkeria sinbolikoa), herritarren artean kontzientzia sortu nahi da, pertsonen arteko indarkeriaren askotariko era eta esparruetara gehiago begiratzeko eta indarkeria horren kausen eta ondorioen narratibetan eragiteko.</p> <p>Kontzientzia orokor horrek jokabide eta harreman-eredu alternatiboak proposatzen dituzten prebentzio-programak egituratu behar ditu, bai eta edozein indarkeria mota justifikatzeari gizarteak uko egiteko moduak ere.</p> <p>Gaiarekiko sentsibilizazioak indarkeriatik biziraun duten emakume biktima guztiei laguntzeko eta ulertzeko giroa izan behar du.</p>	<p>Edukietan</p> <p>Sentsibilizazio eta prebentzio-mezu eta programetan sexua/generoa eta sexualitatea sistematik baztertze sistema zalantzan jarriz, bai eta maskulinitatearen eta feminitatearen eredu heteronormatiboak ere, indarkeria matxistaren egiturazko oinarri baitira, indarkeria horren kausak eta ondorioak zuzenean jorratzen dituzten jarduerak garatuz.</p> <p>Kanpainetako edo bestelako hedapen-jardueretako mezuak emakumeek egoera partikularretan izan dezaketen indarkeria ulertzeko erara egokituz, indarkeria-mota eta eremu desberdinei erantzungo dien ikuspegi interseksionala errealitate gauzatu.</p> <p>Hezkuntza-sisteman</p> <p>Udal Hezkuntza Kontseiluak eta Hezkuntza Mahaiak</p>

JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOA	ZER LORTU NAHI DEN	NOLA LORTUKO DEN
		<p>beren helburuak eta ikastetxeei egindako ekarpenak birzehaztu eta doitu ditzaten bultzatuz, indarkeria matxistaren prebentzioari dagokionez.</p> <p>Ikastetxeetan abian jartzen diren behar eta ekimenen jarraipena egitea eta egiten diren eskaerei laguntza ematea.</p> <p>Hezkuntza ez-formaleko guneetan</p> <p>Garrantzitsua da prebentzio eta sentsibilizazio-lana hezkuntza formalera ez mugatzea eta HHEra, aisialdiko begiraleetara edo beste gazte-elkarte batzuetara, Gaztegunera, gazte lokalera, ludotekara eta udalak kudeatzen dituen gune eta sare birtualetara zabaltzea.</p> <p>Emakumeen Txokoan</p> <p>Beharrezkoa da gazteak autodefentsa feministako ikastaroetara erakartzea, prebentzio-estrategia ona direla erakutsi baitute.</p>

JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOA	ZER LORTU NAHI DEN	NOLA LORTUKO DEN
		<p>Halaber, beharrezkoa da adineko emakumeengana iristeko moduko jarduerak egitea, bizi duten indarkeriaz duten kontzientziaren araberako mezuk lantzeko.</p> <p>Kanpainak egun enblematikoetan koordinatuz, hala nola M8 edo A25.</p> <p>Udal mailan</p> <p>Udalerrian LGTBI biztanleriari dagokion jarduera-planean aurrera egitea, III. Berdintasun Plana egiteko esparruan.</p> <p>Hirigintza arloarekin aurrera egitea emakumeentzako udalerrri seguru eta atsegin baten diseinuan.</p>

2. ILDOA. ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA

Ilido horrek arreta nolakoa izan behar duen ezartzen du, zerbitzu guztietatik eta indarkeria matxista mota desberdinen aurrean.

Indarkeria-egoerei aurre egiten ari diren emakumeekiko esku-hartzearen helburua indarkeria hori gabe bizitzea da, hau da, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak eraikitzen lagunduko dieten erakundeen babesa izatea. Salaketa funtsezko tresna da erasotzailearen zigorgabetasuna saihesteko; banantzea, indarkeria bikote-harreman baten barruan bizi bada, emakume bakoitzak hartu beharreko erabakia da; hala ere, ez salaketak ez banantzeak ez dute esku-hartzearen helburu nagusi izan behar.

Emakumeen segurtasuna bermatzea eredu horren funtsezko elementua izan behar da. Horretarako, *salaketa* lantzea bide garrantzitsua da, emakumeen eta haien mendekoen bizitza eta/edo osotasun pertsonal eta psikikoa arriskuan daudenean. Salaketa jartzeari uko egin gabe, esku-hartze ororen funtsezko giltzarria salaketa jartzeko une egokia kalibratzea izan behar da, emakumeekin hainbat bidetatik lan eginez, salaketa noiz eta nola jarri erabakitzeko. Edo, kasu batzuetan, ez jartzea erabakiz.

Esku-hartzearen helburu hau oinarritzat hartuta, **emakumeen ahalduntzea** sustatzea da aurreikusten den tresnarik boteretsuena.

Ahalduntzea prozesu bat da, hau da, denbora bat behar da emakumeek beren mendekotasun-egoera (pertsonala eta soziala) ikusten eta ulertzen dutenetik aurrera egiten diren aldaketak integratzeko; egoera hori azal baitezakete, eta ekintza indibidualak eta kolektiboak egiten baitituzte beren hautatzeko eta erabakitzeko gaitasuna handitzeko. Prozesu honen lorpenetako batzuk honako hauek dira: beren bizitzak kontrolatzea, beren aldarrikapen-agendak ezartzea, mugatu zaizkien trebetasunak garatzea, beren buruarekiko konfiantza areagotzea, erakundeak sortzea eta beren arazo zehatzak konpontzeko gaitasuna areagotzea, eta prozesu hau ez da lineala, ezta berdina ere emakume guztientzat.

Emakumeen ahalduntze-prozesuaren beste dimentsio bat **kontzientzia kritiko eta kolektibo** bat eraikitzeari dagokio, "gu" delakoa, genero-zapalkuntzako esperientzia partikularrak gainditu eta emakume-talde osoari eragiten dioten gizarte-harremanen zati gisa kokatzeko gai dena. Horretarako, emakumeen arteko harremana eta feminitateari buruzko bizipenen

inguruko hausnarketa bateratua da funtsezko baldintza. Diagnostikoan nabarmendu da Emakumeen Etxeko taldeko arreta psikologikoko zerbitzuaren ikuspegiak eta irmotasunak, beren oneratzeko-prozesuan indarkeriari aurre egin dioten emakumeei laguntzeaz gain, antolaketa-prozesu bat sortu duela, ikaskuntza hori jarduera kolektibo eta kritiko bihurtzeko modua bilatzen ari dena, indarkeria matxistaren aurkako elkartzeko-modua hartuko duena.

Ahalduntzea indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeekin **zeharkako lan-ildo gisa** ezartzeak ikuspegia aldatzea eskatzen du, emakumeen prozesuak, erabakiak eta denborak errespetatzearekin bateragarriak diren baliabide berriak sortzeari edo/eta hobetzeari dagokionez. Hain zuzen ere, politika eta baliabideen diseinua berrikusi behar da, arreta eman behar zaien pertsonen ikuspegitik, eta malgutasunez, pertsonen eta haien kasuistikei erantzuneko dien esku-hartzea ahalbidetzeko, kontuan hartuta biktima diren emakumeek prozesu luzea dutela eta erabiliko dituzten baliabideak esku-hartzearen zati bat baino ez direla.

JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOA	ZER LORTU NAHI DEN	NOLA LORTUKO DEN
<p>2. Arreta integrala, suspertzea eta ahalduntzea</p>	<p>Arreta-eredua biziraun duten emakume biktimen beharrak batera hartzean eta hautematean oinarritzea, indarkeriaren errealitatearen eta kontzientziaren arabera askotarikoak izan baitaitezke.</p> <p>Ereduak emakumeen ahalduntzea izan behar du esku-hartzearen jomuga, indarkeriaren aurrean jarduteko dituzten aukerak zabalduz.</p> <p>Esku-hartzea bera ere osatzailea izatea.</p> <p>Arreta-eredua biziraun duten emakume biktimei zuzentzea, beren rol desberdinetan: bikote gisa, ama gisa, familia bateko kide gisa, bai eta indarkeria horren eraginpean dauden beste biktima batzuei ere (neskatoak, mutikoak, nerabeak eta inguruko beste figura garrantzitsu batzuk)</p> <p>Banakako erantzunen arreta-ereduak esparru kolektibo batean egotea, eta ekar dezake orain</p>	<p>Udal mailan</p> <p>Udal zerbitzuei laguntzea, laguntzen duten emakumeen beharrei buruz gogoeta egiten, ikuspegi hori barneratzeko.</p> <p>Baterako prestakuntza-espazioak eskainiz.</p> <p>Udal-eskumeneko zerbitzuetan arreta berehala ematen dela bermatzea.</p> <p>Udal-eskumeneko erakundeetara hurbiltzen diren biziraun duten emakume biktimek erabaki kontzienteak har ditzaten baldintza egokiak sortuz, beren egoerari egokitutako zerbitzu, laguntza eta lege-neurriei buruzko informazioa jasoz, ulertzen duten hizkuntza eta hizkera batean.</p> <p>Genero indarkeriaren biktima diren amei, bai eta eraginpean egoteagatik biktima izan diren haien seme-alabei berariazko arreta neurriak ezartzea.</p>

JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOA	ZER LORTU NAHI DEN	NOLA LORTUKO DEN
	<p>eremu publikotik ematen diren zerbitzuak berrikustea.</p> <p>Ez zaude bakarrik! Aldarrikapena indarkeriatik irteteko prozesuan biziraun duten emakume biktimei laguntzeko sare batean zehaztea.</p> <p>Arreta-eredua biktima bikarioen, edo eraginpean egon direnen, edo lotura izan dutenen, eskaeretara hurbiltzen joatea, sortzen diren heinean.</p>	<p>Udal-eskumeneko zerbitzuak berrikusi eta hobetzea, indarkeria jasaten duten emakumeen aniztasuna integratzeko: emakume migratuak, adinekoak, amak, gizarte-bazterketako egoeran dauden emakumeak edo ezgaitasunen bat dutenak.</p> <p>Emakumeen Txokoan</p> <p>Bikotekidearen aldetik indarkeriari aurre egiten dioten nerabeak artatzea, arreta psikologikoko programaren bidez, arreta sexuala azpimarratuz.</p> <p>Biziraun duten emakume biktimen ahalduntze-ildoari jarraipena emanez eta hori indartuz, taldeko esku-hartzeen eta topaketa ludiko-terapeutikoen bidez, kaltetutako inguruneari konponketa-prozesuetan sartzen joateko, eta,aldi berean, emakumeen lotsaren eta erruaren kargak murrizteko lan eginez.</p>

Ilido honetako proiektu pilotu gisa, **LAGUN-SARE** bat sortzea proposatzen da, 2021ean sortzen hasiko dena, bere eginkizunak zehaztuz eta boluntarioak prestatuz.

Udalak konpromisoa hartu behar du hura sortzeko behar den azpiegitura emateko eta hura eraikitzeko behar duten ikuskapena egiteko.

Programa hau garatzeko, bereziki, beharrezkotzat jotzen da 2021ean denbora erdiz eta 2022an lanaldi osoz lan egin dezakeen pertsona bat izatea. Kontratatzeko modua programaren lehen zatian zehaztu beharreko alderdi bat izango da.


Lanpostu hori betetzen duen emakumeak konpromiso feministako profila izan behar du, emakumeei laguntzeko bokazioa, mugak jartzeko gaitasunarekin, ordu-erabilgarritasunarekin eta dauden baliabide guztien ezagutza orokorrarekin, bai eta biziraun duten emakume biktimei arreta emateko sarea osatzen duten erakunde guztien prozedurak ere.

Azken baldintza hori programaren lehen zatian bete daiteke, horretarako bereziki prestatutako heziketa baten bidez.

Udaleko berdintasun sailak eta Emakumeen Txokoak zeregin garrantzitsua izango dute pertsona honen eta sare honen sostenguan, erabakitzen diren prozedura eta harreman-moduen arabera. Era berean, Berdintasun Kontseiluak planteatu behar du nola lotu sare horrekin.

Funtsezkotzat jotzen da prozesu hori pixkanaka egitea, hau da, talde txiki batekin hasi ahal izatea, aurrerago zabalduz joan dadin eta ondo definitutako estrategia baten bidez publiko egin dadin.

2021-2023 programako jarduerak



3. ILDOA: SALAKETA PUBLIKOA, MEMORIA ETA ERREPARAZIOA

Giza eskubideak errespetatu eta betetzen direla ziurtatzeko, funtsezkoak dira indarkeria matxistaren salaketa publikoa eta emakumeen memoria biltzea.

Aintzatespenari dagokionez, emakumeen biktimizazioa sozialki zalantzan jartzea da helburua. Izan ere, indarkeria jasan duten emakumeak estigmatizatzeko joera handia dago, *biktima-emakumea* subjektu pasibo gisa ulertuta, eta berez erreakzionatzeko gaitasun urria edo nulua duena; gogoeta hori ez da Zuzenbidean babesten, ikuspegi patriarkal batean baizik, emakumeak jasaten duten eta, nolakotasun edo ezaugarri jakin batzuk izateagatik, guztiak negatiboak diren indarkeriaren erantzule egiten dituen. Horregatik, beharrezkoa da biziraun duten emakume biktimak erreparazio prozesuan dauden subjektu aktibotzat hartzea. Hala, beharrezkoa da biktimaren estatusa legitimatzea eta duintzea, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeek beren beharretara egokitutako erreparazio prozesu bat egin ahal izan dezaten.


Biziraun duten emakume biktimei esku-hartze osatzaile horrekin batera, helburu horiek lortzeko tresnak erabili behar dira; eraso horiek osasunean, ekonomian, lan-ingurunean, afektibitatean, justizia-eskubidean eta abarretan dituzten berehalako ondorioei erantzutea dakar, eta, era berean, arreta-sistemak eta baliabideak daude indarkeriaren ondorioei jarraipena egiteko. Izan ere, indarkeria horiek izaera pertsonala dute, baina baita soziala ere, biztanleek ez dutelako onartu behar haien oinarrizko eskubideen urraketa zigorrik gabe geratzea.

Hori dela eta, ezinbestekoa da komunitate osoak biktimen asebetetzean eta aintzatespenean duen konpromisoa sustatzea. Horregatik, salaketa publikoaren, memoriaren eta aintzatespenaren ildo estrategikoan lan egiteaz gain, herritarren pentsamendua, diskurtsoa eta jardunbideak eraldatu behar dira, kontzientziazio eta sentsibilizazio-jardueren bidez.

Honako jarduera hauek markatu dira lan-ildo honetan:

JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOA	ZER LORTU NAHI DEN	NOLA LORTUKO DEN
<p>3. Erreparazioa, memoria eta erantzun instituzionala</p>	<p>Aurrez aurre dituzten indarkeria mota desberdinek emakumeengan dituzten inpaktu guztiak ikusarazi, bai eta biziraun duten emakume biktimei eta haien ingurukoei eskaintzen zaizkien erreparazio-neurriak ere: kalte-ordaina, errehabilitazioa, ez errepikatzeko bermea.</p> <p>Emakumeek indarkeriarekiko izan duten erresistentziaren historia bildu, eta aurre egiteko estrategiak berreskuratzen duen lana.</p> <p>Indarkeria matxistaren aurkako eta biziraun duten emakume biktimen aldeko pedagogia politikoa egiten duen erantzun instituzionala.</p> <p>Erantzun publikoaren helburuak</p>	<p>Herritarrekin</p> <p>Indarkeria matxistaren aurrean gizarte-eragileen eta herritarren jarrera sustatuz. Horretarako, eraso baten aurrean, funtsezkoa da erasotzailearen erantzuna sistematizatzea, erantzukizuna erasotzailearengan ardaztuz eta biziraun duten emakume biktimen egiari sinesgarritasuna emanez.</p> <p>Udalean</p> <p>Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatzen duen erantzun publikoa berrikusiz eta egokituz.¹⁸</p> <p>Esparru judizialarekin</p> <p>Udalaren bitartekaritzapean, emakumeen aurkako indarkeria ez errepikatzeko eskubidea bermatuko duten neurriak adosteko, indarkeria hori berreskuratzen jarraitu ahal izan dezan.</p>

¹⁸Protokolo horretan ezartzen diren irizpideek kasu zehatzetan eztabaida eta aplikazio handiagoa eskatzen dute, erantzun publikoaren helburuei buruzko akordio politiko bat lortzeko, biktimen erreparazio-neurri gisa eta herritarren artean pedagogia politikoko lan gisa.





Ilido honetan, proiektu pilotu gisa, memoria historiko bat egitea proposatzen da, udalerrian gertatzen diren emakumeen aurkako indarkeriazko gertaerei buruz, emakumeek erabiltzen dituzten erresistentzia-moduak nabarmenduz.

Memoria hau partaidetza-proiektu gisa eraiki behar da, herritarrak inplikaturiko dituen eta, azkenean, eremu publikoan oroimen kolektiborako espazio fisiko bat sortuko duena.

Aldi berean, gizarte-erreparaziorako neurriak lantzea proposatzen da, biziraun duten emakume biktimen ingurunea kontuan hartuta, erreparazio-prozesuan sortzen diren beharrei erantzuteko esku-hartze formatu irekietan.

Programa honen ardura Berdintasunerako Kontseiluari dagokio, Emakumeen Txokoarekin batera eta herritarrak tartean sartuta. Antzeko gertaeretan parte hartu duten pertsonen kanpoko laguntza izan ahalko du.

2022-2023 programako jarduerak



4. ILDOA: ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta ematen dieten zerbitzuen arteko koordinazioak garrantzi berezia du arreta integrala ziurtatzeari eta emakumeen bigarren mailako biktimizazioa saihesteari dagokionez. Egindako diagnostikoaren bidez, eta horrela antzeman dute elkarrizketatutako hainbat pertsonen, eta hala aitortu dute, bai udal-zerbitzuen arteko koordinazioa, bai foru eta autonomia-zerbitzuekiko koordinazioa urriak direla antzeman ahal izan da.

Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen Arteko II. Akordioan, printzipio orokorrek adierazten dute emakumeei ematen zaien laguntza integrala eta pertsonalizatua izan behar duela, berdintasuna bermatu behar duela, ahalduntzailea eta normalizatzailea izan behar duela; eraginkortasunean eta azkartasunean oinarrituta egon behar duela, eta ahalik eta biktimizazio txikiena bilatu behar duela.

Gaur egun, II. Akordio hau berrikuspenean dago, hobetzeko eta arlo horretan azken urteetan izan diren aldaketak txertatzeko. Udal-mailan, garrantzitsua da alderdi horretan aurrera egitea, eta barne-koordinazioa bermatzea, emakumeek egiten dituzten ibilbide ohikoenak eta horietan aurkitzen dituzten erakundeen arteko koordinazio-arazoak ezagututa.

JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOA	ZER LORTU NAHI DA	NOLA LORTUKO DA
<p>4. Erakundeen arteko koordinazioa</p>	<p>Udal-eskumeneko zerbitzu guztien eta tokiko jarduera-esparruko zerbitzu guztien jarduera koordinatua, indarkeria jasaten duten biziraun duten biktimei laguntzen diena, indarkeria instituzionala saihesteko, egoera bakoitzerako egokiagoak izan daitezkeen esku hartzeko estrategiak landuz.</p>	<p>Udal mailan</p> <p>Udaleko sailen artean konfiantzako eta elkarlaneko guneak sortuz, maila horretako koordinazio-mekanismoak indartzeko. Urtean behin hausnarketa-topaketak susta daitezke, bai eta artatutako kasuak gainbegiratzeko espazio ohikoagoak ere eta baterako prestakuntza.</p> <p>Udaleko Berdintasun Sailak aurkeztutako jarduketei buruzko datu orokorrak urtero aztertuz, emakumeen ibilbideak eta horietako bakoitzean indartu beharreko egiturak atzemateko.</p> <p>Generoari eta indarkeria matxistari buruzko prestakuntza sendoa eta kalitatezkoa bermatzea, biziraun duten emakume biktimekin lan egiten duten profesional guztientzat, eta udal-eskumeneko zerbitzuetan dihardutenentzat, bereziki Udaltzaingoan.</p>

JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOA	ZER LORTU NAHI DA	NOLA LORTUKO DA
		<p>Toki, osasun, polizia eta hezkuntza arloetako entitateek proposatzen dituzten koordinazio eskaerei erantzunez, horrek koordinaziorako egitura formalak sortzea ekarri gabe.</p> <p>Entitate koordinatuek biktimen arretari buruz egindako lanaren urteko memoria prestatzea eta garrantzitsutzat jotzen diren ondorioak eta balorazioak dagozkien erakundeei helaraztea.</p>

5. ARDATZA ABIARAZTEKO ETA HAREN JARRAIPENA EGITEKO TRESNAK

5.1. Adierazleen sistema

“Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak” Ardatzaren ildo estrategikoen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, adierazleak prestatu behar dira, gauzatutako ekintzarekin lortu nahi den helburua lortu den zehazteko.

Planteamendu honen jarraipena egiteko, emaitza-adierazleak (EA) eta prozesu-adierazleak (PA) erabiliko dira. Inpaktu-adierazleak (IA) diseinaturiko prozesu desberdinak ezartzen direnean prestatuko dira.

Emaitza-adierazleak dira helburua eta egindako jarduera alderatzean emaitza positiboa (lortutako emaitza), negatiboa (lortu gabeko emaitza) edo partziala (partzialki lortutako emaitza) ematen dutenak.

Prozesu-adierazleak ekintza nola gauzatzen ari den adierazten digutenak dira, adibidez, eta horren bidez lortutako aldaketak eta aurrerapenak adierazten dizkigute.

Bestalde, programa honetan lau lan-ildo estrategiko diseinatu dira:

- ✓ Prebentzioa, sensibilizazioa eta kontzientzia hartzea: kasu honetan, adierazleak prestakuntza eta sensibilizazio-jarduerei dagokien ekintzekin lotuta daude.
- ✓ Arreta integrala, suspertzea eta ahalduntzea: hauen adierazleak, biziraun duten emakume biktimei harrera egiteko jarduera iraunkor eta berriei dagozkie, zerbitzuak emateari, laguntzeari eta, oro har, arreta-prozesuan zehar planteatutako edo aurkitutako beharrei. Ildo honetako beste adierazle kualitatibo batzuk planteatutako ikuspegia betetzearekin eta ezartzearekin lotuta egongo dira.
- ✓ Salaketa publikoa, memoria eta erreparazioa: hauen adierazleek aurrera egingo dute banakako, taldeko eta gizarteko erreparazioaren inguruan sustatutako jarduerak duten eraginean.

- ✓ Erakundeen koordinazioa: proposatutako lan-ildoak finkatzeko udal mailan egiten diren komunikazioa, hausnarketa eta elkarlana hobetzeko garrantzitsuak diren jarduerak neurtuko dituzte, baita herri mailan diharduten beste eskumen-maila batzuetako erakundeekin koordinatzeko ekimenak ere.

Adierazle bakoitza jarraipenerako gida eraginkorra izan dadin, **egiaztapen-iturri** bat edo gehiago identifikatzea eskatzen du, hau da, ekintzak eta horien emaitzak jasotzen dituzten material egiaztagarriak. (egindako dokumentuak, elkarizketak, galdetegiak, aktak, argazkiak, balorazioak, etab.).

Prebentzio, sentsibilizazio eta kontzientzia hartzearen ADIERAZLEAK	
Adierazleak	Egiaztapen-iturriak
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Egindako prestakuntza saioen kopurua. <input type="checkbox"/> Indarkeria matxistaren arrazoen eta ondorioen ezagutza. <input type="checkbox"/> Biktimizazio-mota desberdinen ulerkuntza. <input type="checkbox"/> Kanpainen emaitzak. <input type="checkbox"/> Jardueretako parte-hartzaileak. <input type="checkbox"/> Hainbat erakundek beren ekimenez bultzatutako jarduerak. <input type="checkbox"/> Udalari eskatutako sentsibilizazio jardueren eskaerak. 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Eskuratutako ezagutzei buruzko galdetegiak. <input type="checkbox"/> Prestakuntzen memoriak. <input type="checkbox"/> Kanpainetako akta eta memoria idatzi eta bisualak. <input type="checkbox"/> Jardueren jarraipena sare sozialetan eta Udalaren webgunean. <input type="checkbox"/> Gaiari buruzko iritzi-azterketen emaitza.

Arreta integrala, suspertzea eta ahalduztearen ADIERAZLEAK	
Adierazleak	Egiaztapen-iturriak
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Emakumeek udal-zerbitzuetan lehen arreta jasotzeko itxaron behar duten denbora. <input type="checkbox"/> Itundutako tratamenduetan emakumeak mantentzea. <input type="checkbox"/> Artatutako indarkeriaren eremuen zabalkuntza. <input type="checkbox"/> Artatutako biktimen dibertsifikazioa. <input type="checkbox"/> Laguntza-sarearen programa egitea. <input type="checkbox"/> Emakumeen gogobetetze-maila jasotako arretarekin. <input type="checkbox"/> Arreta-paradigma partekatzen duten eta beren zerbitzuetan aplikatzen duten profesionalak. 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Jardueren memoria. <input type="checkbox"/> Gogobetetze-inkestak. <input type="checkbox"/> Egindako elkarrizketak. <input type="checkbox"/> Arreten erregistroa.

Salaketa publiko, memoria eta erreparazioaren ADIERAZLEAK	
Adierazleak	Egiaztapen-iturriak
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Biktimak erreparatzeko ekimenak egitea. <input type="checkbox"/> Herritarren inplikazio-maila indarkeria matxistaren gaitzespenean. <input type="checkbox"/> Biziraun duten emakume biktimen inguruak eta beraiek berek, ildo horretako jardueretan parte hartzea. <input type="checkbox"/> Jardueren zabalkundea. 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Memoria grafikoak. <input type="checkbox"/> Artikuluak komunikabideetan. <input type="checkbox"/> Jardueretan izandako presentziaren erregistroa. <input type="checkbox"/> Erreparazioko jardura eta ekimenetarako atxikimenduen dokumentazioa.

Salaketa publiko, memoria eta erreparatzearen ADIERAZLEAK	
Adierazleak	Egiaztapen-iturriak
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Udal mailako baterako bileren kopurua. <input type="checkbox"/> Egindako baterako prestakuntzak. <input type="checkbox"/> Zerbitzuen arteko deribazioen kopurua. <input type="checkbox"/> Zerbitzuen artean egindako kontsultak. <input type="checkbox"/> Udaleko beste sail batzuetatik sortutako ekimenak. 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Bileren aktak. <input type="checkbox"/> Jardueren memoria. <input type="checkbox"/> Prestakuntzen balorazioak. <input type="checkbox"/> Egindako elkarrizketak.

JARDUEREN PROGRAMAZIO-FITXA

KOKAPENA ARDATZEAN
Ildo estrategikoa
Lan-eremua
Helburuak
Adierazleak eta egiaztapen-iturriak
EKINTZAREN DESKRIBAPENA
Jarduera
Deskribapena (faseak, beharrezko tresnak,...)
Arduraduna(k)
Jardueraren izaera (adierazi hasiera eta amaiera duen edo urtean zehar garatzen den/adierazi urtero edo oraingoa bakarrik egiten den)
Aurrekontu zenbatetsia/Diru-laguntza
Erakunde laguntzaileak
Espero diren emaitzak (proposatutako adierazleak kontuan hartuta)

I.ERANSKINA: Parte-hartzaileen zerrenda eta erakundea

ZERBITZUAK ETA GIZARTE ERAGILEAK	EGINDAKO ELKARRIZKETAK		ONLINE GALDETEGIA
	BANAKOAK	TALDEKOAK	
Berdintasun Zerbitzua (Emakumeen Etxeko teknikaria eta administraria)		2 parte-hartzaile	
Berdintasun Zerbitzua (Berdintasun Teknikaria)	X		
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak		2 parte-hartzaile	
Kultur Sailsa	X		
Alkatetza eta EH Bilduko Zinegotzigoa		3 parte-hartzaile	
Partidu politikoak		4 parte-hartzaile	
LGTBI+ politiketako zinegotzia, Kultura, Aniztasuna, Garapen Lankidetzaren eta Giza Eskubideen Sailsa, Hezkuntza Sailsa		3 parte-hartzaile	
Irungo Berritzeguneko zuzendaria			X
Larzabaleko Emakumeen Zentroa	X		
SOS Arrazakeria		2 parte-hartzaile	
Udaltzaingoa		2 parte-hartzaile	
Osakidetzaren (Izietako eta Beraungo Osasun Zentroko Gizarte Langilea)	X		
Osakidetzaren (Izietako Osasun Zentroko familia-medikua)	X		
Emakumeen Etxeko abokatua	X		
Emakumeen Etxeko psikologoa	X		
GFAko gizarte-hezitzailea eta psikologoa eta Emakumeen Etxeko partaidea	X		
Emakumeen Etxeko erabiltzaileak	4		
Ahalduntze-prozesuan dagoen emakumea			X
Auzoetako emakume-elkarteak		2 parte-hartzaile	
Talde feministetako militante gazteak		4 parte-hartzaile (Bideokonferentzia Zoom)	
Mugimendu feminista		4 parte-hartzaile	
Ostalaritzako lokalen jabeak		2 parte-hartzaile	
PARTE-HARTZAILEAK	12	30	2

II. ERANSKINA: Praktika Onen Ereduak

Erreterriako III. Berdintasun Planean indarkeria matxista desagerrarazteko ardatza prestatzeko praktika onen ereduak

Sentsibilizazioko, arretako, erreparazioko eta interbentzioko praktika onak

AMS Asociación de mujeres para la salud

PRAKTIKA ONA	MOTA	JARDUKETA ESPARRUA	DESKRIBAPENA	HELBURUAK	LINKA
"Entre nosotras" osasun-espazioa (banakako eta taldeko terapia tailerra)	<input checked="" type="checkbox"/> Arreta <input checked="" type="checkbox"/> Erreparazioa <input type="checkbox"/> Ahaiduntzea <input type="checkbox"/> Sentsibilizazioa <input type="checkbox"/> Prebentzioa <input type="checkbox"/> Interbentzioa	- Indarkeria matxisten biktima izan diren emakumeak	<ul style="list-style-type: none"> - Ibilbidea: <ol style="list-style-type: none"> 1. Elkarrizketa psikologikoa, baloratzeko zein den terapiarik egokiena. 2. Banakako terapiaren bidez errekuaratuzea. 3. Taldeko terapia, nahiz eta banakako jarraipenarekin jarraitu. - Taldeko terapiak desberdinak dira, hainbat emakume-talderi eta egoera pertsonali egokitzen zaizkie. 	<ul style="list-style-type: none"> - Tratamendu psikologiko espezializatua - Ideiak eta emozioak berrikustea - Zalantzan jartzea eta aldatzea, bere bizitzaren eta erabakien jabe sentitzeko - Ahaiduntze pertsonalerako laguntza 	https://www.mujeeresparalasalud.org/terapia-psicologica-para-mujeres/
Escuela del Espacio de Salud Entre Nosotras (ESEN)	<input checked="" type="checkbox"/> Arreta <input type="checkbox"/> Erreparazioa <input type="checkbox"/> Ahaiduntzea <input type="checkbox"/> Sentsibilizazioa <input type="checkbox"/> Prebentzioa <input type="checkbox"/> Interbentzioa	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume eta nesken lan egiten duten profesionalen arretako profesionalak - Prestakuntza 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume eta nesken lan egiten duten profesionalentzako prestakuntza - Generoko ezinegonen, horien prebentzioaren eta emakumeen osasun integralaren gaineko eraginaren aditu graduondokoa - Ekitate feministako psikoterapiaren masterra 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen inguruan lan egiten duten hainbat esparrutako profesionalak prestatzea - Emakume profesionalen beren jardunean jasaten eta bertan dituzten arazoak identifikatzea - Gizarte patriarkalaren ondoriozko ezinegon psikologikoak dituzten emakumeekin lan egiten espezializatzea - Graduondokoa bameratutako ezagutzak praktikan jartzeko aukera 	https://www.escuelaesen.org/
Ekitate feministako psikoterapia, emakumeen ezinegonak arintzeko	<input checked="" type="checkbox"/> Arreta <input checked="" type="checkbox"/> Erreparazioa <input checked="" type="checkbox"/> Ahaiduntzea <input type="checkbox"/> Sentsibilizazioa <input type="checkbox"/> Prebentzioa <input type="checkbox"/> Interbentzioa	Emakumeei zuzendua	Liburu honek kontatzen du Mujeres para la Salud elkartearen historia. Deskribatzen du nola sortu den Ekitate Feministaren Psikoterapia, "Entre Nosotras" osasun-espazioko 30 urteko lanari esker.	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsona orori helaraztea hezkuntzak eta sozializazioak emakumeen osasun mentalarari nola eragiten dion jakiteko ezagutzak. 	https://www.mujeeresparalasalud.org/la-psicoterapia-de-equidad-feminista/

PRAKTIKA ONA	MOTA	JARDUKETA ESPARRUA	DESKRIBAPENA	HELBURUAK	LINKA
metodologia propioa			Azaltzen du nola hasi ziren diseinatzen metodologia propio hori, generoko depresioa edo generoko sindromea bezalako oinarritzko kontzeptuak definituta.	<ul style="list-style-type: none"> - * Frogatzea ekitate feministaren psikoterapia terapia oso eraginkorra dela. - * Psikologiako profesionalak prestatzea terapia horren aplikazioan. - Beste diziplina sozialetako profesionalak prestatzea emakumeekin interbentzioak izatean generoko ikuspegia kontuan izatearen garrantziaren inguruan. 	

Asociación Hèliadones. Associació de suport a les dones que pateixen violència de gènere. Asociación de apoyo a las mujeres que padecen violencia de género

PRAKTIKA ONA	MOTA	JARDUKETA ESPARRUA	DESKRIBAPENA	HELBURUAK	LINKA
Veines x Veines	<input checked="" type="checkbox"/> Arreta <input checked="" type="checkbox"/> Erreparazioa <input type="checkbox"/> Ahalduztzea <input checked="" type="checkbox"/> Sentsibilizazioa <input type="checkbox"/> Prebentzioa <input type="checkbox"/> Interbentzioa	<ul style="list-style-type: none"> - Auzokoei eta indarkeria matxista jasaten duten auzoko emakumeei zuzendua. 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume profesionalak eta boluntarioek osatutako sare komunitarioa, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko auzoak lortzeko. - Boluntarioei esker ateratzen da aurrera, profesionalak prestakuntza eta jarraipen egokia emanda beren auzokideei hainbat ekintza eta prozesutan laguntzen baitiete, adibidez, epaitegietara edo polizia-egoitzetara joaten, abokatuen bisitetara, bisita medikoetara, eskolara, izapide administratiboak egitera, gizarte zerbitzuetara, etab. 	<ul style="list-style-type: none"> - Auzo bakoitzean emakume-taldeak prestatzea eta koordinatzea. - Akonpainamendu integrala (emozionala eta presentziala) indarkeria matxistako prozesu batetik atera nahi duten emakumeentzat. 	https://heliadones.org/es/project/veines-x-veines/

PRAKTIKA ONA	MOTA	JARDUKETA ESPARRUA	DESKRIBAPENA	HELBURUAK	LINKA
Aida	<input checked="" type="checkbox"/> Arreta <input checked="" type="checkbox"/> Erreparazioa <input type="checkbox"/> Ahalduntzea <input type="checkbox"/> Sentsibilizazioa <input type="checkbox"/> Prebentzioa <input type="checkbox"/> Interbentzioa	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte eragileak - Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeei harrera egitea eta baloratzea beren beharrak eta zein arriskutan dauden haiek eta beren seme-alabak - Beste zerbitzu eta baliabide batzuetara bideratzea egoki denean. - Akonpainamendu indibidual espezializatua, beharretara egokitutako maila psikologiko eta juridikoan. - Erakundearen gizarte-arretako beste proiektu batzuen osagarria da proiektu hau. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahalduntze osoa lortzea ikuspegi integraletik helduta. - Erantzuna ematea emakumeek jasaten dituzten indarkeria-modu desberdinak antzemanda eta dagokien arreta emanda. - Emakumeak guztiz ahalduntzea indarkeria matxistako edozein prozesutan, ikuspegi integraletik helduta. - Optimizatzea zirkuitu publikoko eta hirugarren sektoreko baliabideak, emakumeen beharrei erantzunda are inpaktu handiagoa izan dezan. 	https://heliaciones.org/es/project/aida/
BCN Dona	<input checked="" type="checkbox"/> Arreta <input checked="" type="checkbox"/> Erreparazioa <input type="checkbox"/> Ahalduntzea <input type="checkbox"/> Sentsibilizazioa <input type="checkbox"/> Prebentzioa <input type="checkbox"/> Interbentzioa	<ul style="list-style-type: none"> - Profesionalak eta boluntarioak 	<ul style="list-style-type: none"> - Indartzea harreman sozialak eta babeseokak. Bartzelona hiriko kultur-jarduerak eta -ekimenak hurbilduta sozialki isolatuta egon diren emakumeen taldeei. - Topaketa ludiko-terapeutikoak antolatzen dituzte (irteerak antzerkira, kontzertuetara, seme-alabekin haumentzako ikuskizunetara...), bizirik atera direnei laguntzeko indarrak hartzen bizi-proiektu berrirako ingurune segurua, errespetutsua eta solidarioa berreskuratzeko edo eraikitzeko. - Funtsezkoa da Bartzelonako Udalaren Apropacultura plataformarekin lankidetzan jardutea. - Jarduerak arreta jartzen dute kaltea erreparatzean ikuspegi sozio-komunitariotik eta elkar laguntzekotik, eta sustatzen da emakumeek parte hartzea komunitateko sarean auzoko 	<ul style="list-style-type: none"> - Sustatzea indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak ahalduntzeko babes-sarea 	https://heliaciones.org/es/project/barcelona-dona/

PRAKTIKA ONA	MOTA	JARDUKETA ESPARRUA	DESKRIBAPENA	HELBURUAK	LINKA
			<p>espazio ludikoen bitartez.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proposatzen da auzoko emakumeak inplikatzeko indarkeria-prozesuak bizitzeko ari diren emakumeek sare soziala berreskuratzeko proiektuan. - Tailerrak antolatzen dituzte auzoko eta barrutiko emakumeekin eta bizirik dirauten emakumeekin, horrela sustatzeko kohesioa, elkartzuneko eta sendotasuneko espazio partekatu bat, asteroko hainbat tailerren bidez. 		

Asociación Mariren alabak Elkarte


PRAKTIKA ONA	MOTA	JARDUKETA ESPARRUA	DESKRIBAPENA	HELBURUAK	LINKA
Akonpainamendu integral profesionala. Aholkularitza-sarea	<input checked="" type="checkbox"/> Arreta <input checked="" type="checkbox"/> Erreparazioa <input checked="" type="checkbox"/> Ahalduz <input type="checkbox"/> Sensibilizazioa <input type="checkbox"/> Prebentzioa <input checked="" type="checkbox"/> Interbentzioa	<ul style="list-style-type: none"> - Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak - Profesionalak eta boluntarioak 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikuspegi integral eta pertsonalizatuarekin, boluntario-sare bat gaitzen dute hainbat esparrutan jarduteko gai izan daitezkeen, horrela eraikitzeko indarkeria matxistaren biktima seguru sentitzeko moduko sarea. - Eskaintzen dituzte harrera, akonpainamendua, aholkularitza juridikoa eta laguntza psikologikoa. - Langile espezializatu eta kualifikatuek boluntarioak prestatzen dituzte genero-indarkeriari buruzko 1/2004 legean, 4/2015 biktimaren estatutuan edo berdintasunerako 3/2007 legean. - Akonpainamendua eskaintzen diete emakumeen prozesu judizialean baldin badute eta edozein erakundetara joateko. - Lehen kontaktu honetatik landuko da erreparazio animiko eta psikologikoa, langile espezializatuen eskutik. 	<ul style="list-style-type: none"> - Sensibilizazioa eta arreta hobetzea indarkeria matxistaren inguruan, genero-ikuspegiko eta berdintasun-politketako prestakuntza emanda ondoren akonpainamendu integralaz arduratuko diren boluntarioei. - Emakumeei laguntzea kontziente izan daitezkeen genero-desberdinkerien eta ahalduz diren inguruan. 	https://marirenalabak.org


PRAKTIKA ONA	MOTA	JARDUKETA ESPARRUA	DESKRIBAPENA	HELBURUAK	LINKA
<p>CRISTINA FALLARÁS</p> <p>#cuéntalo PROIEKTUA</p>	<p><input type="checkbox"/> Arreta</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Erreparazioa</p> <p><input type="checkbox"/> Ahalduntzea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Sentsibilizazioa</p> <p><input type="checkbox"/> Prebentzioa</p> <p><input type="checkbox"/> Interbentzioa</p>	- Erasoak jasan dituzten emakume guztiak	<p>2018ko apirilaren 26an, Cristina Fallarásen ekimenez, #Cuéntalo traola sortu zen, emakumeak gonbidatzeko jasandako erasoak kontatzera, eta nazioarteko eragina izan zuen. 14 egunetan 3 milioi emakumek erantzun zuten, kontu bakarretik abiatuta eta babesik gabe.</p> <p>BSC-k (Barcelona Supercomputing Center) prozesatu eta analizatu zituen lehen 14 egunetako datuak eta emaitzak kontsulta daitezke proiektuaren web-orrian.</p> <p>Dokumentu historiko honek indarkeria matxistaren memoria kolektibo berria osatzen du emakumeen beren ahotsetik abiatuta, eta saiatzen da #Cuéntalo mugimenduaren izpiritua eta garrantzia erakusten istorio indibidualak galdu gabe.</p>	<p>#Cuéntalo-ren helburua da agerian jartzea salaketan egiazkotasuna eta gatazkaren dimentsioa.</p> <p>#Metoo eta #Balancetonporc mugimenduak ez bezala, #Cuéntalo mugimendu horizontala da, emakume anonimoen parte-hartzea bilatzen du bere istorioa kontatu dezaten, horrela emakumeak identifika daitezkeen beste emakume batzuen ahotsarekin. Ahots horiek, zenbait kontakizunetan, ez daudenen ahotsak ordezkatzen dituzte.</p>	<p>http://proyectocuentalo.org/</p>
<p>ISABEL CADENAS</p> <p>De eso no se habla</p>	<p><input type="checkbox"/> Arreta</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Erreparazioa</p> <p><input type="checkbox"/> Ahalduntzea</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Sentsibilizazioa</p> <p><input type="checkbox"/> Prebentzioa</p> <p><input type="checkbox"/> Interbentzioa</p>	- Publiko orokorra	<p>Txikiak ginenetik esan digute "horretaz ez da hitz egiten" ("de eso no se habla") esaldia, afaltzeko garaian edo familia-topaketaren batean. Podcastean jorratzen dira esaldi horiek emakumeengan eta gizartean eragiten dituen isiltasunak: horien atzean dauden istorioak, eta zer gertatzen den isiltasun hori apurtzen denean.</p> <p>Isabel Cadenas Cañón idazle eta soinu-dokumentalistak zuzentzen du eta "Basauriko 11 emakumeak" taldearen inguruko pasarte bat du, horrela, ikuspegi feministatik berreskuratzen du Espainian abortu legalari bidea zabaldu zion epaiketa-prozesua jasan zuten emakumeen memoria.</p>	<p>De eso no se habla ez-fikzio narratiboko podcast bat da, kronikaren, saiakeraren eta dokumentalaren artean dagoena, saiatzen dena isilune pertsonalen eta isilune kolektiboen arteko puntuak lotzen.</p>	<p>https://deesonosehabla.com/</p>

PRAKTIKA ONA	MOTA	JARDUKETA ESPARRUA	DESKRIBAPENA	HELBURUAK	LINKA
<p>AMANDINE FULCHIRON</p> <p>FESTIVALES DE LA MEMORIA</p> <p>Actoras de cambio</p>	<p><input type="checkbox"/> Arreta</p> <p><input type="checkbox"/> Erreparazioa</p> <p><input type="checkbox"/> Ahalduntzea</p> <p><input type="checkbox"/> Interbentzioa</p>	<p>- Guatemalan gerran eta gerraostean sexu-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak</p>	<p>Actoras de cambio Guatemalako erakunde feminista da.</p> <p>Prozesu komunitario eta sozialak sustatzen ditugu sexu-indarkeriaren inguruko isiltasuna apurtzeko; sexu-indarkeriak, gerrak eta arrazismoak emakumeen bizitzan utzitako zauriak sendatzeko; beren ahots eta esperientzietatik gogora ekartzeko eta lan egiten dugun lurraldeetan beriz ez errepikatzeko baldintzak sortzeko.</p>	<p>- Emakumeak gai izatea gure gorputza, bizitza eta komunitatea birgaitzeko, legitimotasuneik, gure buruaren gaineko konfiantzatik eta autonomiatik, eta gure bizitzan eta beste emakumeen bizitzan aldaketak sustatzea bizi zoriontsu, aske eta indarkeriarik gabea sortzeko, emakume guztiok merezi dugunaren pare.</p>	<p>https://www.actorasdecambio.org.gt/</p>

III ERANSKINA: AKTA GRAFIKOAK

Mahaia





2. Mahaia

Caja de las mujeres de Ereñterria | Noviembre de 2020

¿CÓMO RECOGER LA MEMORIA Y TRABAJAR EN LA REPARACIÓN A LAS MUJERES QUE ENFRENTAN VIOLENCIA?

RECOGER LA MEMORIA ••••• Y CONSTRUIR MEMORIA

NOEMA VÁZQUEZ
Dianizadora

Las asistentes han podido participar lanzando sus preguntas

PREGUNTAS DEL PÚBLICO

¿Amundino, ¿los feriales son mixtos?

Hay una parte pública de exposición abierta a cualquiera que quiera y otra parte de sesión sólo para mujeres.

Todas las charlas han sido en castellano pero las preguntas se podían hacer en euzkera

Las jornadas han tenido una muy buena acogida

ASISTENCIA 1ª JORNADA: 22 mujeres 1 hombre	ASISTENCIA 2ª JORNADA: 51 mujeres 2 hombres
---	--

VIOLENCIA DIGITAL: Cristina Fallarás cuenta que últimamente están sobrotando las charlas en las que participa

Se ha facilitado el acceso tanto vía online como presencial

han sido muy interesantes las dos jornadas. Ahora nos toca reflexionar sobre ello y encontrar nuestro propio cauce...

La alcaldesa de Ereñterria ha estado conectada a través de Zoom

TAMBIÉN HA HABIDO DEBATE ENTRE LAS PONENTES

Para mí es importante que el relato se acompañe con una acción simbólica

Yo creo que el relato es en sí mismo una forma de liberación

No todas las mujeres tienen acceso a las mismas herramientas

Los relatos en PRIMERA persona son impresionantes

PROYECTO #cuentalo

De ser no de hacer PODCAST

COLECTIVA ACCIONES DE CAMBIO

¿Qué diferencia hay entre que yo me presente DICIENDO que soy V. vs. CONTANDO el relato de mi experiencia personal?

ABSTRACCIÓN (No llega a nadie) vs. TESTIMONIO IDENTIFICACIÓN

CRISTINA FALLARÁS

PROYECTO #cuentalo

SENTENCIA MANADA

No ha habido violencia ni intimidación

A raíz de la sentencia

@virginipalomo (Directora diario Público) escribe un tweet describiendo una agresión que vivió ella

¿A mí se me ocurre contestar con otra experiencia mía y creando el hashtag #CUENTALO

EL RELATO es el que crea mecanismos de IDENTIFICACIÓN

NO HAN ROBADO PARTE DE NUESTRA NARRACIÓN

Ha habido una CONSTRUCCIÓN de la culpa brutal

Al de unos días, miles de mujeres compartían sus experiencias

160.000 tweets

nombrar

El señalamiento es un arma de restitución


Tenemos que sacar nuestro relato al EXTERIOR.

Cuando tenía 8 años un hombre me encendió su pene en una gasolinera...
↓
Al ver que otra mujer comparto su misma experiencia SE RECONOCE



3. Mahaia





IV. ERANSKINA: LEGE ESPARRUA

EAEko botere publikoen jardura kokatze aldera, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen artapenaren koordinazioa hobetzeko helburua duen legedia ondorengoa da:

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan:

- i. 2011ko maiatzaren 11ko emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzio eta borrokarako Europar Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbuleko Protokoloa), zeina 2014ko apirilaren 11an espainiar Estatuak berretsi zuen eta 2014ko abuztuaren 1etik indarrean dagoen.
<https://www.boe.es/boe/dias/2014/06/06/pdfs/BOE-A-2014-5947.pdf>
- ii. Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa.
<https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con>
- iii. 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, genero indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
https://boe.es/boe_euskera/dias/2018/08/04/pdfs/BOE-A-2018-11135-E.pdf
- iv. Gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>

Aipatutakoez gain, **emakume etorkinen aurkako indarkeriaren** arloan honako hauek ere badaude:

- i. Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa.
[https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3D%2820%29Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa 0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290509290181&ssbinary=true](https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3D%2820%29Atzerritarrek+Espainian+dituzten+Espubide+eta+Askatasunei+buruzkoa+0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290509290181&ssbinary=true)
- ii. 4/2000 Lege Organikoaren erregelamendua, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onartua.
<https://www.boe.es/boe/dias/2011/04/30/pdfs/BOE-A-2011-7703.pdf>

- iii. Otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretua, Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2007/BOE-A-2007-4184-consolidado.pdf>

Adin txikikoen babesaren arloan:

- i. Otsailaren 18ko 3/2005 Legea, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko.
- ii. Uztailaren 22ko 8/2015 Legea, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketaren gainekoak, bere hirugarren xedapen gehigarrian abenduak 28ko Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoan aldaketak ezartzen dituenak.

https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2015/07/23/pdfs/BOE-A-2015-8222-E.pdf

Eskumenen banaketaren arloan:

- i. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- ii. Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- iii. Abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- iv. Urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- v. Abenduak 28ko Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren 19. artikulua 7. puntua, **berdintasun organismoen kompetentziei** buruzkoa.
- vi. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 17. artikulua, 27. puntua.

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eli/es-pv/l/2016/04/07/2/dof/eus/html/>

Datuen babesari dagokion arloan:

- i. 2016/679 Erregelamendua (EB) 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/CE Zuzentaraua (Datuen Babeserako Erregelamendu orokorra) indargabetzen duena 2016ko maiatzaren 25ean indarrean sartu zena eta 2018ko maiatzaren 25etik aurrera derrigorrez aplikatu beharrekoa.
https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/eu_def/adjuntos/rgpd_2016R0679-es-eu.pdf
- ii. Abenduaren 5eko Datu pertsonalen babesa eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa.
https://opendata.euskadi.eus/contenidos/ds_recursos_linguisticos/memo_datu_pertsonalen_legea/es_def/Ley%20Org%C3%A1nica%2032018%2C%20de%205%20de%20dicie mbre%2C%20de%20Protecci%C3%B3n%20de%20Datos%20Personales%20y%20garant%C3%ADa%20de%20los%20derechos%20digitales.pdf

Halaber, **hurrengo akordioak ere hartzen dira kontuan:**

- i. Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak deuseztatzeko konbentzioaren hautazko protokoloa (1999).
http://www.sipi.siteal.iipe.unesco.org/sites/default/files/sipi_file_file/p12_protfac_conv_eliminacion_discriminacion_mujeres.pdf
- ii. Etxeko tratu-txarrak jasan duten emakume biktimen Segurtasun Plana, 2002-2004.
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/eu_def/adjuntos/1ai.plan.seguridad.eus.pdf
- iii. Segurtasun gorputz eta indarren jokaera eta genero indarkeria eta etxeko indarkeria jasaten duten emakumeak babesteko auzitegi organoekin duten koordinazioari buruzko Protokoloa, 2004.
http://www.violenciagenero.igualdad.mpr.gob.es/profesionalesInvestigacion/juridico/protocolos/docs/Protocolo_Actuacion_Fuerzas_Cuerpos_Seguridad_Coordinacion_Organos_Judiciales.pdf
- iv. Etxeko indarkeria jasaten duten biktimen babes aginduak ezartzeko Protokoloa, 2003.
http://www.violenciagenero.igualdad.mpr.gob.es/profesionalesInvestigacion/seguridad/protocolos/pdf/Protocolo_implantacion_orden_proteccion.pdf

- v. Etxeko indarkeria jasaten duten biktimetzako bizileku eta harrera baliabideak hobetzeko Programa, 2004-2005.
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/eu_def/adjuntos/1ai.programa.acogida.2004.2005.eus.pdf
- vi. Etxeko tratu-txarren eta emakumeen aurkako indarkeria sexualaren gaineko osasun arloko Protokoloa, 2008.
https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/maltrato_domestico/es_maltrato/adjuntos/protocoloSanitarioAnteMalosTratosDomesticos.pdf
- vii. Etxeko tratu-txarren eta eraso sexualen biktimen harrera hobetzeko II. erakundeen arteko Akordioa, 2009.
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/eu_def/adjuntos/2.acuerdo.interinstitucional.eus.pdf
- viii. Genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida. Osakidetza.
<https://www.osakidetza.euskadi.eus/genero-indarkeriaren-eta-sexu-erasoen-aurrean-euskadin-nola-jardun-jakiteko-jarduketa-gida/ab84-procon/eu/>

Lege-esparru honen arabera, batez ere abenduaren 28ko genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat eginez, bikotekideen edo bikotekide ohien aldetik zuzeneko indarkeria jasan duten **emakumeen eskubideak** ezartzen dira:

- i. Emakume etorkinen eskubideak (17.1 art.)
- ii. Informazio-eskubidea (18. art.)
- iii. Laguntza sozial osoa jasotzeko eskubidea (19. art.)
- iv. Laguntza juridiko doako, berehalako eta espezializatua jasotzeko eskubidea (20. art.)
- v. Laneko eskubideak eta Gizarte Segurantzako prestazioak jasotzeko eskubidea (21, 22 eta 23 art.)
- vi. Eskubide ekonomikoak (27 art.)
- vii. Etxebizitza babestuen eta adinekoentzako egoitza publikoen sarbidean lehentasuna (28 art.)
- viii. Seme-alaben berehalako eskolatze eskubidea (5. artikulua eta hamazazpigarren xedapen gehigarria)

Horrez gain, genero indarkeriaren biktimei **delitu baten biktima** izateagatik beste eskubide batzuk ere badagozkie:

- ✓ Salaketa bat formulatzeko eskubidea.
- ✓ Etxeko Indarkeria jasan duten biktimen Babes-agindua arautzen duen ekainaren 31ko 27/2003 Legeak ezartzen duen Babes-agindua eskatzeko eskubidea.<https://www.boe.es/boe/dias/2003/08/01/pdfs/A29881-29883.pdf>
- ✓ Bere erasotzailearen aurrean ez aitortzeko eta bere segurtasun eta ongizate emozionala bermatzen duten neurri guztiak hartzeko eskubidea.
- ✓ Prozedura penalaren parte izateko eskubidea.
- ✓ Etxea itzultzeko, sortutako mina erreparatzeko eta eragindako kalteagatik indemnizazio bat jasotzeko eskubidea.
- ✓ Ekintza judizialen informazioa jasotzeko eskubidea.
- ✓ Duintasuna eta intimitatea babesteko eskubidea.